446



## Hasier Larretxearekin solasean 03

Sortzez arraioztarra, urtarrilaz geroztik FELGT Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Estatuko Federazioko teknikaria da Madrilen eta berarekin egon gara.



## Baztango XIV. Mendi Itzulia, hilaren 27an 36

Hilabete hasieran Berako Mendi Itzulia izan bagenuen, oraingoan Baztangoaren txanda izanen da. 34 kilometroko bidea Almandozen hasi eta bukatuko da.

2007ko maiatzaren 17a • XXVII. urtea
www.ttipi.net




KALTE NABARMENAK ERAGIN DITU

# 20 Aspaldiko uholderik haundienak


argazki
pertsonalizatua
ORDOKI
altzariak
Larunbat goiz eta
arratsaldez irekia
ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA


Cambia Nafarroa.
Navarra aldatu!
Na Bai
Nafarroa Bai
vota Nafarroa Bai
una nueva cultura política para cambiar Navarra
Aralar, Eusko Alkartasuna, EAJ-PNV, Batzarre
zure botoa: Nafarroa Bai
kultura politiko berria Nafarroa aldatzeko

## DATUAK...

- Sortzez arraioztarra, Xorroxinen esatari ibilia, Baztango Udaleko Gizarte langile gero, urtarrilaz geroztik FELGT Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Estatuko Federazioko teknikaria da Madrilen.

- Gazte homosexualei arreta zerbitzua eta gurasoei informazioa eskaintzeaz gain, gizonezko sexu langileentzako IHESaren prebentzio programen koordinatzailea da.

- Beharraren arabera, hainbat tailer antolatzen ditu FELGTk.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Hasier LARRETXEA** *FELGTko teknikaria*

# «Normaltasunean biziko bagina, ez genuke elkartearen beharrik izanen»

Gurutze PIKABEA

**Zein da FELGTn helburua?**

Helburu nagusienetarikoa homofobia, lesbofobia, transfobia edo bifobiarekin akitzea da, eta horrekin bat, lehen mailako hiritar gisa, eskubide berak izatea. Normaltasunaren eta aniztasunarengatik ari gara gizarte mailako lan politikoarekin. Horrez gain, Estatu mailako 43 elkarteei sustengua eta laguntza ematen diegu arlo desberdinetan: proiektuen eginkizunetan, programen jarraipenean, ekimenen antolakuntzan, etab. Normaltasunean biziko bagina ez genuke elkartearen beharrik izanen.

**Gure eskualdean nola ikusten dituzu gauzak?**

Gaizki xamar ikusten dut egoera, aunitzetan Iruñea, Donostia edo urrutirago joan behar baitugu errespetatzen gaituen inguru batean lagun talde bat osatu edo bizitzera. Oraino, lan haundia dago egiteke hezkuntzan, gureganako errespetua eta informazioa bulkatzeko. Gure aldetik, nahiz eta aitzineko urteetan taldetxo batek gai hau landu, ez dugu behar genukeen harrotasuna eta normaltasuna bulkatzen. Uste dut inguru fisikoak eta nekazaritza eta abeltzaintzak bai gizonezko eta bai emakumezko indartsuak egin dituela eskualdean, bertzelako ezaugarriak dituzten gizonezko eta emakumezkoak guttietsiz. Eta pentsa gizonezko gorputza eta emakumezkoa sentitzen den pertsona batengan, edo alderantziz! Gizaixoa!

**«Helburu nagusienetarikoa homofobia, lesbofobia, transfobia edo bifobiarekin akitzea da»**

**Homosexualitatearen inguruan zein behar eta gabezia somatzen dituzu?**

Informazioa eta ulermenaren beharra, eta errespetuaren gabezia somatzen dut. Hezkuntza arloan azkenaldian homosexualitatearengatik erasoak eta mehatxuak ematen ari dira. Garai gogorrena da gainera nerabezaroa, eta zure sexu bereko erakarpenak gehiago nahas zaitzake. Zorionez, pittaka-pittaka irakaskuntza sentsibilizatuago dago. Bertzalde, transexualen kontrako eraso bortitzak ematen dira oraino, eta era sakabanatuan, homosexualen kontrakoak ere bai, baina zorionez, gero eta guttiago. Garrantzitsuena salatzea da, ez ezkutatzea.

**Aholkularitza faktore garrantzitsua izanen da sexu nortasuna agertzeko «beldur» direnen artean, ez?**

Bai, aunitzetan norekin eta nola solastu ez baitakite. Azken asteetan guraso oso katolikoak dituen mutiko batekin egin dut aholkularitza lana, informatuz, badagoela kristauen homosexual elkartea adibidez. Aunitzetan galduta dabiltza, gauzak nahastu xamarrak dauzkate, edo ez dira barnean dutena askatzera ausartzen beldurra edo erranen dutenarengatik (azken hau gehiago herri ttipietan).

**Zer erranen zenioke sexu nortasuna agertzearen «beldur» dagoen bati?**

Unean sentitzen duena egiteko. Beldur egoteko arrazoirik ez duela, ez duela zertan ezkutatu. Harro-harro egon beharko lukeela, eta bere barneari aditzeko, bere buruarekin leiala izateko. Aunitz baikara mundu honetan beldur hori iragan, eta lasaitasunez eta normaltasunez bizi garenak. Gure eskuetan dago.



UTZITAKO ARGAZKIAK
Baztango foro guztiak udaletxean egin dira. Argazkian ekimenaren azken bilkuretako batean parte hartu zutenak.

AGENDA 21 BAZTANEN ETA BORTZIRIETAN

# Lehentasunezko proiektuak: Baztanen ekonomia eta Bortzirietan garraioa

**Agenda 21 ez da oraingoa, duela 25 urte sortu zen Brasilen etorkizuneko garapenaren nondik norakoak adosteko; duela 8 allegatu zen Nafarroara, eta zehazki, Baztanera eta Bortzirietara 2005eko ekainean. Ia bi urte beranduago, Agenda 21ek izaten dituen bi atalak —diagnostikoa, beharrak eta gabeziak aztertzeko, eta ekintza plana, proiektuak zehazteko— bukatutzat eman dira. Egindako foro eta bilerei esker, bai Baztanen eta bai Bortzirietan ingurumenaren, ekonomiaren eta gizarte-gaien inguruan hobetu beharreko alorrak zein diren zehaztu dituzte: Baztanen premia haundiena duena ekonomia, lanpostu falta dago. Bortzirietan, berriz, garraioa N-121A tartean dela. Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, Terra-Prometeako teknikariak ibili dira lan horretan. Lehentasunezko proiektuak zehaztu dituzte, eta orain, udalen esku dago onartu eta martxan paratzea. Hauteskunde ondotik, Malerrekan hastekoak dira, Leitzan ere bai.**

Gurutze PIKABEA

2005eko ekainean hasi zuen Agenda 21ek Baztan eta Bortzirietan ibilbidea. Uztailean, 600 inkesta egin ziren, 300 Baztanen eta 300 Bortzirietan, herritarrek beren herrian eta eskualdean zein premia eta gabezia somatzen dituen jakiteko. Hortik abiatuz, Zorione Aierbe, Iciar Montejo eta Gurutze Santxo 'Terra-Prometea'ko teknikariek gabezia horiei begirada bota, eta lan-taldeak edo foroak egiten ibili dira. Bilerak aitzinetik jakinarazitako gai baten ingurukoak izaten ziren: ingurumena, ekonomia edo gizarte-arloa. Eskualdeko teknikari, politikari eta herritar horiekin bilkurak egin ondotik, lehenengo analisia egin zuten. Hortan datza diagnostikoa.

Diagnostikoa egindakoan ekintza plana prestatzen hasi zirela argitu di-

## Zorione AIERBE *Terra-Prometeako teknikaria*



**Nolako parte-hartzea izan du Agenda 21ek?**
Toki bakoitzean parte hartzea modu ezberdinean planteatua izan da, errealitatea ezberdina delako. Bortzirietan Cederna eta udaletako teknikari eta politikarien laguntzarekin zerrenda bat osatu, eta hortik abiatuz 25 laguneko taldetxoa osatu genuen. Halere, foroak irekiak izaten ziren. Azkenean, talde egonkor bat sortu zen. Baztanen, ordea, parte hartzea kili-kolo egon da. Orain urte gutti plan estrategiko bat egin zuten, eta orduan ere parte-hartze prozesua garatu zen eta horregatik-edo, zaila izan da jendea mugiaraztea. Egoera horretan, plan estrategikoa teknikoki Agenda 21ean barneratzen saiatu ginen. Azkenean 15-20ko taldetxoa osatzea lortu genuen, interesa eta konpromisoa zuen jendearen artean.

**Prozesua bukatutzat eman daiteke?**
Nafarroako Gobernuaren eskariz, teknikarion konpromisoa ekintzak edo beharrei aurre egiteko proposamenak lantzen laguntzea da, eta Baztan eta Bortzirietan hori egina dago. Orain, Agenda 21en ateratakoa gauzatzea tokatzen da. Bortzirien kasuan, adibidez, Cedernak emanen du bulkada. Lehentasunak zehaztuak dira, eta orain zezenari adarretatik heldu eta ekintzak banaka-banaka garatzea tokatzen zaie udalei, udaletxean onartu eta martxan paratzea.

**Balorazio orokor bat egite aldera, zer nabarmenduko zenuke?**
Bortzirietan bortz udalerriek batera lan egiteko balio izan du prozesuak, erraten zigutenez, orain arte ez dute izan espaziorik jendea batu eta beharrizanak konpartitzeko, lehentasunak izan daitezkeen ikusteko eta alde horretatik ona da. Horrek indarra ematen duela uste dut, etorkizunera begira prozesua mantentzeko. Baztanen, ordea, parte-hartzea kili-kolo ikusi dugu, eta horri buelta emateko beharra ikusi dugu, denak batera lan egitea falta da.

### *«Zezenari adarretatik heldu eta ekintzak abiatzea tokatzen zaie udalei»*

gu Zorionek: *«hobetzeko arlo horietan arreta jarrita, 100 bat ekintzez osatutako plana egin genuen, eta proiektu batzuk proposatu»*. Baztanen kasuan, 174 ekintza izan ziren eta Bortzirietan 135. Eta ekintza planaren ondotik, lehentasuna dutenak lan-taldeetan lantzea izan da berriki bukatu dutena. Bortzirietan 25 laguneko lan-taldeek eta Baztanen 15-20koek, Terra-Prometeakoen laguntzarekin 100etik goitiko proiektuen artean *«hautaketa sinboliko»* bat egin dute. *«Nonbaitetik hasteko, eta baliabideak mugatuak direlako»*, azaldu digu Zorionek. Hala, Baztanen 59 eta Bortzirietan 58 proiektu zehaztu ziren. *«Gero, horietatik bigarren hautaketa sinboliko bat egin eta Bortzirietan 12 eta Baztanen 15 proiektu gelditu dira»*. Agenda 21en *«diseinua»* bukatutakoan, orain udalaren esku dago proiektuak martxan paratzea.

### NAFARROAKO GOBERNUAK ORDAINTZEN DUEN EKIMENA

Nafarroako Gobernua da Agenda 21 ekimena ordaintzen duena. Udalerri edo eskualde bakoitzak Gobernuari eskaera egin, eta honek erabakitzen du zeinetan garatuko den ekimena. Orain bi urte onartutakoa Baztan eta Bortzirietako eskaera izan zen bezala, **hauteskundeen ondotik, Malerrekan hastekoak dira eta segidan Leitzan.**

## LEHENTASUNA DUTEN PROIEKTUAK

### *Agenda 21en arabera, Baztan eta Bortzirietako premiazko beharrak*

«**BORTZIRIETAN** hasiera-hasieratik gakoa **garraioa** izan da, hasiera-hasieratik atera zena, N-121Ari lotua. Bortz udalerriak lotzen dituen gai bat izan da, prozesuari eskualdearen ikuspegia eman diona. Horrez gain, zerbitzuetara joz, **ura** ere arazo bezala planteatu da. Hala nola, Beran ur arazoak dituztelako. **Osasuna** da bildu garenon artean arreta jaso duen bertze kontua, osasun zentru berri baten beharra ere planteatu baitzen. Zerbitzuen inguruan bertze behar batzuk ere baziren baina nabarmenena garraiorena. Gero, **kudekaketa**ri dagokionean, eskualdeko ikuspegia landu beharra ere ikusi da, udalerri ttikiak dira, eta Nafarroa mailan hobekuntzak lortzeko ezinbertzekoa da denak batera joatea. Hortik abiatuta, hori nola antolatu, **hirigintza** nola antolatu… Horretaz ere aritu gara».

«**BAZTANEN**, **ekonomia** izan da arreta gehien jaso duen gaia. Lanpostu falta azpimarratu da, bertako jende aunitzek kanpora joan behar izaten duelako lanera. Horretaz aritu gara, sektore ezberdinak garatuz lanpostuak nola sustatu daitezkeen. Bertze arazoa edo potentzialtasuna, **ingurumena nola kudeatu** izan da. Baztanen lur komunal aunitz dago, ordenantza batzuk ere badaude baina akaso pixka bat zaharkituak. Guzti hori nola eguneratu behar den izan da kontua. Bertze gaia, berriz, **hirigintza**rena izan da, nahiko presio dagoelako etxebitziak eraikitzeko. Alde batetik, beharrezkoa delako, baina aldi berean, ingurumenarekin uztartu beharra dagoelako. Magnaren harrobiaren auzia prozesuaren azken zatian azaldu zaigu. Baina nik uste dut, pixka bat tapatuta gelditu dela. Gaia polemikoa dela ikusten da, eta hasierako inkestan, Udalak hala eskatuta, harrobiari buruzko galdera berezi bat planteatu zen, baina ez zen argi gelditu erantzuna. Batzuk, lanpostuak sortuko dituelako-edo, ongi ikusten dute, baina bertze batzuk, ingurumena errespetatu behar dela ikusten dute. Hasieran zein bukaeran, iritziak kontrajarriak ziren».

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 32 € |
| Espainia | 32 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika | 110 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 26 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Baztanen hizkuntz eskubideak urratuak

Baztanen Euskal Herriguzian bezala, euskaldunon hizkuntz eskubideak egunero urratuak dira. Baztango osasun zerbitzuan lan egiten duten 36 langiletatik 12k eskuara ez dakite. Udaletxeko 27 langileetatik 2k eskuara ez dakite. Datuok ikusita, administrazio publikoak bere hizkuntza politika aldatzea beharrezkoa ikusten dugu. Eskuararen normalkuntza helburu izanen duen plana martxan jartzea ezinbertzekoa da; ondoko puntuok behintzat bete beharko lituzke: Administrazio publikoan (osasunbidean, udaletxean...) lan egiten duten langile guztiek eskuaraz jakitea. Horretarako euskaldunak ez diren langileak euskalduntzeko planak martxan jartzea eta hemendik aintzinera kontratatzen direnak euskaldunak izatea.

Udalaren lan hizkuntza eskuara izan behar da. Hau lortzeko nahitaezkoa da langileez gain, udal hautetsiak ere euskaldunak izatea.

Ikastetxetatik ateratzen diren ikasle guztiak eskuaraz idatzi eta mintzatzeko gaitasuna izatea.

Puntu hauek ez betetzeak ondorengo egoerak sortzen ditu:

Eriek beren hizkuntzan bere sentimentuak ezin adierazi izana.

Udaleko bilkuretan lan dinamika gehien bat gaztelera izatea.

Udalean baimenak eskatu edo zure kezkak adierazteko orduan gaztelera erabili behar izatea. Eskuaraz ezin espresatzeak gaizki-ulertuak ekartzen ditu.

Aipaturiko hauek ekiditeko Baztanen eskuara lehentasunezkoa izatea eskatzen dugu. Gure hizkuntza eskubideak bermatuak izan daitezen.

**Iban Larratxea eta
Jon Elizetxe
Baztango EHE**

## Goizuetan Haur Topagunea

Goizuetan apirilaren 21ean egin zen Haur Topagunea dela-eta, hainbeste zorion iritsi zaizkigu eta eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi. Aipatu, ez dela Guraso Elkartearen meritua bakarra izan, gogoratu jasotako laguntza guztia: antolaketa, prestaketa, garbiketa... Beraiekin banatzen ditugu jasotako goraipamenak. Mila esker denei. Azkenik, eskerrak eman festara inguratu ziren guztiei eta hurrengoan ere hain ongi atera dadila dena.

**Goizuetako
Guraso Elkartea**












• PUBLIZITATEA •










lanbideheziketa
KALITATEKO PRESTAKUNTZA · ENPRESARENTZAKO BERMEA · LANBIDE ETORKIZUNA
IZENA EMATEKO EGUNAK
Goiko Maila, maiatzaren 17tik 28ra bitarte
Nafarroako Gobernua

LANTEGIAK

# Arcelor Mittaleko Enpresa Batzorde berriko ordezkariak udan izendatuko dituzte

## Enpresa berriak plan estrategikoa udazkenean aurkeztea espero da

ttipi-ttapa

*Arcelor Mittal*ek Europako Enpresa Batzorde berria eratu du, langileen eta enpresako zuzendaritzako ordezkariak izanen ditu. Negoziazioen ondotik, Europar Batasuneko bederatzi estatutako ordezkariek apirilaren 19an sinatu zuten akordioa Asturiasen. Hitzarmenak orain arte bi enpresa ziren (*Arcelor* eta *Mittal Steel*) eta orain bat egin duten enpresetako akordioak ordezkatuko ditu, eta guztira Europar Batasuneko 130.000 langileren errepresentatuko ditu, tartean Lesaka eta Legasako langileak. Batzordearen ordezkari kopurua zehaztua badago ere, ordezkariak udan izendatuko dira.



Artxiboa

**Aurelio Gutierrez (ELA) da Arcelor Mittaleko Enpresa Batzorde berrian Espainiatik egonen diren 5 ordezkarietatik 1.**

Langileen aldetik, 54 ordezkari izanen ditu: 5 Alemaniak, 8 Belgikak, 5 Espainiak (UGTko 2, CCOOko 2 eta ELAko 1), 9 Frantziak, 2 Italiak, 3 Luxenburgok, 9 Poloniak, 5 Txekiar Errepublikak eta 8 Errumaniak. Ordezkari kopurua aztertzeko, bi urtetik behin bilduko dira.

Bertzalde, Batzorde Mugatu bat ere eratuko dute, Europako Enpresa Batzorde berri horren ardurak hartuko dituena, alegia. Batzorde Mugatu honek 25 ordezkari ditu: Alemaniak 2, Belgikak 4, Espainiak 3, Frantziak 4, Italiak 1, Luxenburgok 2, Poloniak 4, Txekiar Errepublikak 2 eta Errumaniak 3. Azken hau guttienez hiru-labetero bilduko da.

### Plan estrategikoa udazkenean

Dagoeneko enpresa *Arcelor Mittal* izenaz ezagutzen bada ere, legalki oraindik ez da eratua. Bateratzea udazkenean bukatuko dela uste da. Hala ere, hilaren 2an bateratzeko akordioa eta horren inguruko informazio agiriak hitzartu zituzten. Epe laburrean horren berri emanen dutela jakinarazi zuten.

Aurelio Gutierrez (ELA) Europako Enpresa Batzorde horretako kidea izanen da azken orduko okerrik ez bada, eta berak azaldu ziguñez, *«enpresak plan estrategikoa udazkenean aurkeztea espero da eta orduan nabarituko dira langileengan zein ondorio izanen dituen»*.

Halere, apirilaren 26ean Luxenburgon egindako bileran Arcelor Mittalek Nafarroan dituen Lesaka, Legasa eta Berriozarko lantegiek *«modernizazioaren beharra»* dutela aurreratu zuen Gonzalo Urkijo enpresako arduradunak. Gaineratu zuenez, *«2006ko irabazi ekonomikoak ez ziren onak izan, eta arazoa plantillan dago, ez kostuetan»*. Gisa berean, hemengo lantegien inguruan azterketa orokor bat egiten ari dela argitu zuen, eta maiatzean bukatzea espero dutela. Azterketa garatu aitzinetik sindikatuei aurkezteko asmoa ere iragarri zuen, lantegien *«etekin globalak»* hobetzeko helburuarekin.



Lesakan

egin behar dugu

Juan Fermin Mitxelena Larralde
Lesakako Alkatetzarako Hautagaia

eman botoa
vota

EAJ PNV
www.eaj-pnv.com

## BERA

# Bera-Endarlatsa errepide zatiko lehenbiziko harria paratu dute

### Moldatze lanek bi urte iraunen dutela aurreikusten da



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

**Apirilaren 27an Bortzirietako alkateak, Nafarroako eta Gipuzkoako ordezkari politikoek eta obra arduradunek N-121Ako obren lehen harria paratu zuten.**

**Amaia eta Ainhoa**

Apirilaren 27an N-121-A errepideko moldaketa lanen lehendabiziko harria jarri zuten Lastaola baserriaren parean. Obrak maiatzean hastea aurrikusia dagoenez (maiatzaren 10ean hasi gabe zeuden), harria egun batzuk lehenago jartzea erabaki zuten agintari politikoek.

Errepidea moldatzeko lanek bi urte iraunen dutela aurreikusi da.

### *Mendi Itzulian jende guttiago*

Maitzaren 6an egin zen VII. Berako Mendi Itzulia. Aurreko urtetako ibilbide bera egin zuten parte hartzaileek; 5 orduz lehenak eta 8 orduz azkenak. Aurten 310 mendizale izan ziren. Aurreko edizioetan baino jende guttiago ibili bada ere, antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Uholdeak eta Lapurdin hauteskundeak zirelako, uste baino jende gehiago hurbildu zen. Xabier Zubieta, *Loro* Pikabea, Unai Etxepare eta Xabier Saralegiren oroimenez hainbat ekitaldi ere egin ziren. Ibilbidea hasi aurretik bertsoak abestu zituzten, parte hartzaileen artean zinta zuri, berde, hori eta moreak banatu zituzten eta Santa Barbaran, Tailon mendian hildakoen hautsak dauden tokian, beraien argazkiak jarri zituzten.

### *Gure Txokoara sartzeko txartel elektronikoak*

Gure Txokoa Elkarteko 18 urtetik goitiko kideek, hemendik aitzinera ostatura sartzeko txartel elektronikoak erabili beharko dituzte. Azkenaldian elkarteko ostatuan izan diren galerak saihestu nahian, oraingo sarraila kendu eta elektronikoa jarriko da. Bazkidearen datuak grabatuak dauzkan txartel elektronikoa emanen zaio bakoitzari, eta horrela, galerak kontrolatzea errazago izanen da.

Txartela hartzeko asteazkenetan 19:00etatik aurrera joan behar da. Bazkidearen datuak bildu eta datu basea berritzeko orrialdea bete beharko da.

### *Antzerkia*

Kultur Batzordeak antolatuta, ortzegunean Kunka Produccionesen *«Meando fuera del tiesto»* ikusiko da KulturEtxean 20:00etan.

### *Musika entzunaldiak maiatzean*

Maiatzaren 9an hasi eta hilabete bukaera arte, musika eskolako ikasleek urte guztian ikasitakoa jendeaurrean erakusteko aukera izanen dute. Akordeoi eta trikitixa entzunaldiak maiatzaren 9an izan ziren, eta datorren astean, hilak 22, piano eta teklatu joleen txanda izanen da, musika eskolako areto nagusian, 18:00etatik aurrera. Maiatzaren 29an, 19:00etan, biolin entzunaldia izanen da eta hurrengo egunean, haizezko musika tresnen txanda, 17:00etatik aurrera. Entzunaldiok Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatu ditu eta musika eskolako areto nagusian izanen dira.

### *Inauterietako argazki lehiaketa*

Udalak antolatutako inauterietako argazki lehiaketan, 56 argazkiren artean, Koro Iratzokirena aukeratu dute. Inauterietako nortasuna eta giroa hobekien agertzen duelako aukeratu dute bere argazkia. Sari gisa, Koro Irazokik *iPod nano* bat jaso du. Bertzalde, parte hartzaile guztien artean egindako zozketan, Rosa Mª Errandoneak liburu sorta bat jasoko du.













LESAKA

# Ekitaldiz gainezka datorren Gazte Eguna ospatuko da larunbatean

Ataka, Akatu, Anestesia eta Habeas Corpusek kontzertua eginen dute

Aitor AROTZENA

«Gazteok elkartuz, herria bultzatu» lelopean, larunbat honetan Gazte Eguna antolatu du Lesakako Gaztik taldeak. 10:00etatik 12:00etara tailerrak izanen dira; artistikoa, txalaparta... 12:00etan, Nafarroako gaztetxoen bertso txapelketako finala jokatuko da Kattun, herriko ordezkaritza zabalarekin. 14:30ean, bazkaria izanen da plazan. Bazkalondoa patxadan pasatu ondotik, 18:00etan 3x3 futbito txapelketa plazan. 20:00etan trikipoteoa eta akautzeko, 22:30etik aitzinera kontzertua eskainiko dute frontoiko aparkalekuan Ataka, Akatu, Anestesia eta Habeas Corpus taldeek. Sarrerak aitzinetik 5 eurotan daude eta bertan 7 eurotan.



Argazkia: GOIKO

*Musika Bandaren 150. urteurreneko ospakizuna*

**Bikaina izan zen Musika Bandaren 150. urteurrena ospatzeko plazan prestatu zen ikuskizuna. Argi gelditu zen Musika Bandarik gabe, nekez eginen zela ospakizunik herrian: olentzero, inauteriak, Sanferminak, Beti Gazte elkartearen himnoa... Musikari beterano bati, Tomas Rekondori omenaldi berezia egin nahi izan zioten eta bere gaztetako irudiak ikusten ziren bitartean, Tantirumairuko dantzariek bere izena daraman fandangoa dantzatu zioten. Goizean hil zen Santiago Irigoienentzat ere izan ziren oroitzapen eta esker oneko solasak. Frontoian egin zen bazkarian 350 lagun bildu ziren eta gaua luzea izan zen aunitzentzat.**

### *Sanferminetako kartel lehiaketa*

Ortziral honetan, 13:00etan itxiko da Sanferminak iragartzeko kartel eta programaren azal lehiaketara lanak aurkezteko epea. Azal lehiaketarako 25x20 cm.ko lanak aurkeztu behar dira eta kartel lehiaketarako, 50x40 cm.koak. Batean nahiz bertzean, «Lesaka. 2007ko Sanferminak» jarri beharko du.

### *Jubilatuak Milagrora*

San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak ateraldia antolatu du maiatzaren 31n Milagrora.

Goizeko 11:00etan Montecillo finkara ailegatu eta hameketakoa izanen dute. Handik herrira joanen dira bisita egitera eta ondotik berriz ere Montecillora itzuliko dira bazkaltzera. Bazkalondoan dantzaldia eta zezen plazan errekortadore profesionalen erakustaldia izanen dute.



HERIOTZA

Santiago IRIGOIEN

## Txistulari eta txistu irakasle bikaina

Hainbat belaunaldiren txistu irakasle izan den Santiago Irigoien maiatzaren 5ean hil zen, 93 urte zituela. Txistulari eta atabalari bikaina, txisturako doinuak ere konposatu zituen, «Hiria» biribilketa erraterako. Musikari handia izan baldin bazen ere, bere gizatasuna oraindik handiagoa zen eta ikasle guzien maitasuna eta miresmena irabazi zuen. Musikari hain lotua bizitu zena, egun aski seinalatuan hil zen, bandak 150. urteurrena ospatzen zuen egunean.



Igantzi egiteko beste era bat badago

Iñaki Goienetxe Zubieta
Igantziko Alkatetzarako Hautagaia

eman botoa
vota
EAJ PNV
www.eaj-pnv.com

ETXALAR

# Kalte ikaragarriak eragin zituen maiatzaren 4ko uholdeak

## Urritzokieta eta Antsolokueta auzoak kaltetuenak

**Joseba eta Nerea**

Errepideak hondatuak, bide bazterreko paretak botata, autoak urak eramanda, behiak leporaino uretan, zerrikumeak igeri, baratzeak ur azpian, etxeetako lehen solairuak urez beteta, zubiak mugituta, zerrategia hondatuta, zuhaitzak botata, sekulako kalteak eragin zituen maiatzaren 4ko euri erauntsiak. Goizean goiz hasi zen eta ordu guttitan, Txmista erreka metro dezentez goratu zuen. Ura modu zakarrean hazi zen eta inguruan zuen guztia aitzinetik eraman zuen. *«1983an izan ziren azken uholdeak herrian, baina oraingoak aunitzez ere gogorragoak izan dira, batez ere denbora guttian pasatu delako eta jendeari ez dio erreakzionatzeko denborarik eman»* erran digu Patxiku Irisarri alkateak. Antsolokueta, Anduetzeta eta Urritzokieta izan ziren auzorik kaltetuenak. Orizki eta Lakain Apezborron ere izan zituzten ezbeharrak. Suhiltzaile aritu ziren goiz osoan bizilagunei laguntzen eta bazterrak txukuntzen. Kalteak oraindik ere ikusgai daude nonnahi. Aste batzuk pasatuko dira herria normaltasunera bueltatzeko.

### Laguntza Gobernutik

Udal ordezkariak, inguruko bertze hainbat alkaterekin batera, Bertizen bildu ziren hilaren 7an Miguel Sanz presidentearekin eta bertze hainbat ordezkarirekin. Bilkuratik ateri zuten ondorioen artean, azpiegituretan izandako kalteen %100a Gobernutik ordainduko dela. Enpresa pribatuen kalteordainak, berriz, bertze modu batzutan ordainduko dituztela erran zieten. Bizilagunak, azkenik, argazkiak ateratzen aritu ziren aseguru etxeei kalte ordainak eskatzeko.

Lerro hauek idaztерakoan oraindik ez da kalte ordainen kopuru zehatzik. Udaleko teknikoak eta arkitektua kalteak baloratzen ari dira egunotan. Hurrengo alean emanen ditugu zenbaki zehatzak.

### *Hauteskundeei begira*

Zozketan erabakitakoaren arabera, hauek izanen dira maiatzaren 27an hauteskunde-mahaian egonen direnak: presidentea Mª Luisa Altzuguren Iturria, lehen bokala Belen Martikorena Irigoien eta bigarrena Jose Luis Urretabizkaia. Hauetako baten batek huts egitekotan hauek izanen dira ordezkoak: Arantxa Iribar Iruretagoiena, Sara Lekuona Araneta eta Pedro Ibarra Etxenike.







Argazkia: Ttipi-Ttapa

**Ordu guti batzutan, irudi ikusgarriak erakutsi zituen gainezka egindako errekak. 1983ko uholdeekin konparatuz, oraingoa haundiagoa izan da.**

arkitanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
SANTIAGO 55 2°B ELIZONDO · TLF 948 581 931

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Eguneroko menua eta asteburutan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 · 948 631 155 · BERA

bortzIRUDI
bortzirudi@telefonica.net
Eztegara, 26 Eskuineko Behea D · BERA · Tel-Faxa: 948 631 521

ARANTZA

# Ikasturte bukaerarekin kanpaldiak antolatu dira eskolatik

## Ekaitza Elkarteak frontenis txapelketa antolatu du

Nerea ALTZURI

Hilabete honekin batera urteroko hitzorduekin topo egiten dugu. Herriko eskolako lagunek ateraldi ezberdinak antolatu dituzte. Joan den astean Haur Hezkuntzako eta 3. zikloko ikasleak Zarauzko eta Zuazako kanpaldietan izan ziren, hurrenez hurren. Maiatzaren 9tik 11 bitarte 3. ziklokoak. Bortzirietako 65 ikasle inguru Zuazan izan ziren. Maiatzaren 10ean eta 11n, berriz, Haur Eskolako 10 herriko ikasle Zarautzen izan ziren. Aste honetan, astezkenean eta ortzegunean, lehen zikloko ikasleak Beiren kanpaldian daude. Ekainari begira, berriz, 6tik 8ra bitarte 2. zikloko 6 eskolako ikasle irakasleekin batera Lizarran kanpaldian izanen dira. Eta akautzeko, bi urtero behin egiten ikasketa bukaerako bidaia Bartzelonara eginen da. Ekainaren 14tik 20ra artean 6 ikasle irakasleekin Katalunian oporraldian izanen dira. Horrela pixkanaka-pixkanak aitzinera doa ikasturtea, eta hilabete eta erdi bertzerik ez da gelditzen udako oporretan murgitzeko.

### *Frontenis txapelketa*

Ekaitzak Elkarteak frontenis txapelketa antolatu du. Arrakasta izan du deialdiak eta dirudienez bikote sailak izena eman du.

Bertzalde, joan den apirilaren 28an 50 inguru lagun Goizuetara joan ziren oinez. Bezpera ilunabarreko euri zaparrada zakarrak ez ziren larunbat goizean errepikatu, eta polita atera zen goiz partean behinik behin. Harat ailegauta Goizuetako Umore Ona elkartean bazkaldu ondoren, ilunabarrean etxera itzuli ziren autobusetan. Egun ederra pasatu zutela erran digute.

### *Ikastaroak*

Bestak prestatzen hasiak dira herriko dantzariak. Ortziral eta larunbat arratsaldetan gaztetxo eta helduak dantzak ikasten ari dira: ortziraletan gaztetxoak, eta larunbat arratsaldetan, herriko neska-mutiko ttikienei herriko dantzak erakusten ari dira, Amabirjin egunean dantzari helduekin neska dantza eta zortzikoa dantza ditzaten. Ondoren, 17:00etan, 15 herriko neska-mutil helduxeago dantzak ikasten ari dira. Amaia Apezetxeak erakutsita bestetarako emanaldia egitea aurreikusten dute.

Bertzalde, aurtengo eskulan ikastaroa asteartehonetan bukatu da. 8 lagun asteartero aritu dira Pui maestrarekin. Merienda-afari batekin agurtu zuten ikasturtea.

### *Jaunartzeak*

Ekainaren 10ean eta 11:30eko mezan lau neska-mutilen jaunartzea izanen da. Aurten Xabier Taberna, Judith Etxeberria, Lupe Jimenez eta Oihana Etxeberriaren komunioa izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Arantza Aitzinerak herritar aunitzen babesa jaso du**

**Arantza Aitzinera maiatzaren 27rako hauteskundeetarako aurkeztu den udal taldeak herritar aunitzen babesa duela ageri da, eta adin guztietako herritarrak ikus daitezke argazkian.**









IGANTZI

# Apirilaren 28tik maiatzaren 1era Udaberriko bestak, aurten berrikuntzarekin

## Apirilaren 29an, lehen aldiz, azoka egin zen etxez etxe bildutako gauza eta produktuekin egin nahi den mapa diruz laguntzeko

**ttipi-ttapa**

Bertze urte batez, aurten ere Igantziko Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta Udaberriko bestak egin ziren herrian. Sanmigel bestak oraindik urruti baldin badaude ere, zer ikusi izan zen besta ttiki hauetan ere. Apirilaren 28an, larunbatarekin hasi eta maiatzaren 1a bitarte luzatu zen besta. Larunbat eguerdian Biltokin joko tradizionalak egin ziren. Ondotik, bazkaltzeko barrikotea antolatu zuten. Arratsaldean, eskolako haurren txanda izan zen, eta aitzineko aldietan bezala, euren emanaldia eskaini zuten Baratzondon.



ARTXIBOKOA
**Eskolako haurrek emanaldia eskaini zuten aurten ere. Argazkian duela bi urte besta ttiki hauetako emanaldian parte hartu zutenak ageri dira.**

Baina aurtengo bestetako berrikuntza nabarmena igandean, apirilak 29, ikusi ahal izan zen: lehen aldiz azoka egin baitzen, eta berezia gainera. Herrian egiten ari diren mapak izanen duen gastua ordaintzeko ekimena izan zen azoka. Hala, etxez etxe eskea egin eta jendeak emandako gauzak paratu zituzten azokan ikusgai eta salgai. Horrez gain, etxeko produktuak ere salgai jarri zituzten, eta eskolako ikasleen lanak ere ikusgai paratu ziren.

Zer ikusi eta zer erosi izateaz gain, zer entzuna ere izan zen herrian. Lesakako Musika Bandak kontzertua eskaini baitzuen.

Azken egunean, jokoak izan ziren frontoian haurrentzat, eta ondotik, merienda. Hurrengo aldirako agurtu zituzten Udaberriko Bestak.


URTXINTXA
Toailak-Manteleriak-Oheko maindireak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011




ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A
Igantziko bentak
948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraioak zintak eta mahaiak
• Mantenu rodilloak

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
KATXA-BIKE
Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18





IRU BIDE
Errotegia · Asador

BAR Botxo OSTATUA


BOZKATU
EAE ANV
INSTITUZIO DEMOKRATIKOEI
PROZESU DEMOKRATIKOARI
EUSKAL HERRIARI
ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI
BAKEARI
Baiezko borobila!

## SUNBILLA

# Orientazioari buruzko ikastaroak eginen dira ekaineko hiru asteburutan

### Azken egunean ariketa praktikoa du eta haurrei zuzendua dago

Jaione OTXANDORENA

Ekaineko hiru asteburutan, orientazioari buruzko ikastaroak emanen dira eskolan. Ikastaro hauek batez ere haurrei zuzenduta daude, baina helduren batek ere izena eman nahi badu arazorik gabe egin dezake. Ekaineko hiru larunbatetan izanen dira ikastaroak, egun bakoitzean bi ordu, 9:30etik 11:30 arte. Lehenengo bi klaseak teorikoak izanen dira eta hirugarrenean ariketa praktikoa dute. Irakaslea Sunbillako Vidal Ibarra izanen da eta interesatuta dagoenak, izena emateko berarengana joan beharko du.

### Plaza berriko obrak

Hilabete honetan eman zaie hasiera Ramon Latasaren izena eramango duen plaza berriko lanei. Abuzturako bukatuta egotea espero du Udalak eta hala, herriko bestetarako eginen litzateke inaugurazioa. Hiru altueratan egonen da banatua. Haur parkea, paseatzeko tokia, kioskoa eta jokuetarako tokia izanen ditu eta han jarriko da Ramon Latasa aizkolariaren eskultura ere. Lan guztia, Sasoi enpresak hartu du, 241.250,47 euroko aurrekontuarekin.

### Artzainen besta

Duela urte batzuetatik honat ohitura den bezela, Ameriketan artzain egondako sunbildarrek Ulibeltzak elkartean bazkaria egin zuten. Aurtengoan 32 lagun bildu ziren. Goizean, meza izan zuten beraiekin batera artzain egondakoen oroimenez, eta ondotik, 14:30ak aldera Ulibeltzak elkartean bildu ziren denak batera bazkaldu eta atsaldea elkarrekin pasatzeko.

### Matrikulazio epea zabalik

Dagoeneko zabaldua dago datorren ikasturtera begira, eskolan izena emateko epea. Maiatzaren 22a arte egonen da zabalik eta goiko eskolara joan beharko da izena ematera, eskolako ordutegian.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

**Jaunartzeak herrian**

**Joan den apirilaren 29an jaunartzea egin zuten herriko 6 gaztetxok: Rebeca Lorea Martiarena, Ana Petrirena, Bidane Madariaga, Ainara Altuna, Iker Espelosin eta Naroa Gagok.**











ESKUALDEA

# Familia euskaldunetan egonaldiak antolatu ditu HABEk aurten ere

## Guttienez herritarren %70 euskalduna den herrietan

ttipi-ttapa

Bertze urte batez HABEk –Helduen Alfabetatzen eta Berreuskalduntzerako Erakundeak– 'Egonaldiak familia euskaldunetan' ekimena antolatu du, Euskal Herriko hainbat familiaren laguntzaz. Gure eskualdera ere euskara ikastera hurbiltzen da jendea, Arantza edo Zubietara aunitz, adibidez. Ekimenaren helburu nagusia inguru euskaldun batean euskara erabili eta bertako bizimodu eta kultura gertutik ezagutzeko aukera ematea da. Hala, familia euskaldun batean hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldiak egiten dituzte.

Euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familiek hainbat baldintza bete behar izaten dituzte: etxean guttienez hiru lagunek bizi behar dute eta egunerokoan euskaraz mintzatu. Hilabete bakoitzean lagun bakarra har daiteke. Gisa berean, biztanleriaren % 70etik goiti euskalduna duten udalerri batean bizi behar du familiak. Familientzat izena emateko epea apirilaren 20an akitu zen.

Ikasleei dagokionean, ordea, epea oraindik zabalik dago, maiatzaren 31n akituko da. Ikasleak 18 urtetik goitikoak izanen dira eta logela pribatua emanen zaio. Trukean familiak, hilabeteko egonaldi bakoitzeko, 620 euro jasoko ditu.



ITUREN

# Ander Erasunek finalerdietako txartela lortu du Urrezko Aizkolarien txapelketan

Hurrengo saioan Aitzol Atutxaren kontra arituko da

Arkaitz MINDEGIA

Arantzan jokatutako gazteen mailako norgehiagokan, alde batetik, Garikoitz Larretxea Julen Kañamaresen aurka aritu zen, eta bertzetik, Oihan Larretxea Ander Erasunen aurka.

Oihan Larretxea ederki hasi zen, eta lehen bi probak bukatzean aurtiztarrari 22 segundoko aldea kendu zion, baina hortik aitzinera Anderrek bertze itxura bat eman zuen. Ondoko bi probetan jaun eta jabe izan zen, eta Oihan ongi aritu bazen ere, ezin izan zuen deus egin aurtiztarra menean hartzeko. Lanak bukatzeko Anderek 6 minutu eta 56 segundo behar izan zituen eta Oihanek, berriz, 7 minutu eta 10 segundo. Gazteen mailako finalerdian, beraz, Erasun Atutxaren aurka arituko da.

### *Irunberrira inglestegi batera*

Eskolako 5. eta 6.mailako ikasleak aste honetan ingelesa ikasteko aukera izanen dute Irunberrin. 11 neska-mutiko eta irakaslea Irunberrira joan dira ingelesa ikasi eta praktikatzera. Hainbat gauza eginen dituzte: klaseak, ariketak, tailerra… Dena ingelesez, baina giro lasaiagoan. Ongi pasa eta aunitz ikasi.

### *Maiatzaren 27an jaunartzeak*

Aurtizko Leire Erasun eta Ekiñe Mindegiak jaunartzea eginen dute maiatzaren 27an.



Argazkia: Pello Ariztegi

***Iturengo joaldun eta dantza taldea Bartzelonan***

**Maiatzaren 19 eta 20an Bartzelonara joanen dira joaldunak, triktilariak eta dantza taldekoak. Larunbat goizean abiatuko dira eta Igandean buelta. Larunbatean, 18:00etan desfilea eginen dute eta ondoti dantzariek ikuskizuna eskainiko dute. Argazkia iaz Bartzelonara egindako bidaian ateratakoa da.**











Artesiagako Magnesita

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



ESKUALDEA

# Gobernuak kalteak konpontzeko dirulaguntza maximoak emanen dituela iragarri du

## Euriteek eta ekaitzak gogor astindu dute eskualdea

ttipi-ttapa

Maiatzaren 4ko ekaitzak kalte handiak eragin ditu gure inguruko herrietan, batez ere, Baztan, Bortziriak, Urdazubi, Zugarramurdi, Sara, Senpere eta Azkainen. Ortziral goizeko argi hastean izandako euri jauziek uholdeak sortu zituzten. Autoak eta zuhaitzak erreketan behera ikusi ziren, zubiak hautsita eta helikoptero bitarteko salbamenduak ere izan ziren Senperen.

Nafarroan kaltetuenak, Elizondo, Arraioz, Etxalar, Urdazubi eta Zugarramurdi izan ziren. Bi metro eta erdira arte ailegatu zen ur maila zenbait tokitan. Lapurdin, erraterako, Senperen, Saran, Ainhoan eta Azkainen. Azken herri horretan 16 lagun atera zituzten onik suhiltzaileek etxeetatik, helikopteroan.

Gehienek 1983ko uholdeak izan zituzten gogoan. Halere, aunitzek azkeneko hau okerragoa izan dela aipatu zuten.

Uholdeen hurrengo egunetan, herrietako eta Nafarroako Gobernuko ordezkari eta teknikariak kalteak ikusten ibili ziren herrietan. Gobernuak, bere aldetik, dirulaguntza maximoak emanen dituela iragarri du. Errepideak, pistak eta herrietako azpiegiturak moldatzeko lanak %100ean finantzatuko dituela ere adierazi du. Kaltetuei astelehen honetan akitzen zitzaien kalteak neurtu eta Gobernuari jakinarazteko epea.





ARGAZKIAK: J.L. KARRIKABURU ETA TTIPI-TTAPA

**Inguruko herri kaltetuenetako bat Arraioz izan zen –goian–. Uraren indarraK lohia eta harria ekarri zituen mendian beheiti, eta karrikak ez ezik etxeetan ere kalte haundiak eragin zituen. N-121A errepidean ere –behean–, Berrizaundik hurbil, Bidasoak gainezka egin zuen.**



## ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniaritza, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazteriari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko bertze eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

## INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzoruak eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarriztatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiarik aurreratuena ingurumenaren zerbitzura**. Uhal garraiatzailen karenatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoak bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



## ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesitak errelebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua**. Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduera atxikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.

Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

DONEZTEBE

# Udalak igerilekurako zaintzaileak kontratatzeko deialdia egin du

Bertzalde, herriko dendak *«Zure karrikan, zurekin»* kanpainan parte hartzen ari dira

**ttipi-ttapa**

Doneztebeko Udalak 2007rako denboraldiari begira, udal igerilekurako zaintzaileak kontratatzeko deialdia egin du. Hartara, interesa duen orok maiatzaren 31 baino lehen eman beharko du izena. Alkatetzak zerbitzuaren inguruko informazio osagarriaren berri emanen duela ere jakinarazi du.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

***Errekaren mailak goiti***

**Hilabeteko lehenbiziko astean izandako euriteek ez zuten bertze herri aunitzetan bezalako kalterik eragin herrian, baina errekaren mailak goiti egin zuen nabarmen. Argazkia Sunbilla aldera trenbidea hartzen den lekukoa da, eta ura zubitik hagitz hurbil zegoela ikus daiteke. Zorionez, ordea, ez zen maila gainditzeko adinakoa izan.**

### *Merkatarien kanpaina*

Herritarrak komertzio ttikiek herriari ematen dioten bizitasuna eta indarraz jabetzeko, Doneztebarrak Merkatarien Elkartea *«En tu calle, junto a ti»* izeneko kanpainan parte hartzen ari da hilabete honetan. Nafarroako Merkataritza Federazioak antolatzen du ekimena, eta bertze toki aunitzetan bezala, Doneztebeko merkatalguneek ere horrekin bat egin nahi izan dute. Helburua argi da: saltoki haundiek duten indarraren aitzinean, ttikiagoen garrantzia eta beharra azpimarratzea. Horregatik, maiatza guztian kanpainarekin bat egiten duen kartela izanen dute dendetako eskaparate edo atean.

### *Udaberriko Feria*

Aitzineko ortziralean, hilak 11, Udaberriko Feriaren eguna zen herrian. Doneztebeko Udalak antolatu zuen, Nafarroako Gobernuaren eta Cederna-Garalur elkartearen laguntzarekin. Goizeko 10etatik aitzinera, aziendak zein eskulanak ikusgai eta salgai egon ziren herrian: aziendak Merkatu Plazan, eta artisauen erakusketa eta salmenta eliza atarian. Horrez gain, lehenbizikoz ahari lehiaketa ere egitekoak ziren. Eta horrelakoetan ohikoa izaten den bezala, azienda onena saritzeko sari banaketa ere egitekoak ziren.

### *I. Basurde Biker besta*

Motorra gustuko dutenek aukera ezin hobea zuten Donezteben pasatu berri den asteburuan. Elkartasuna Kasino elkarteak antolatuta, Udalaren eta Gazte Barrunbaren laguntzarekin egitekoa zen lehenbizikoz, Basurde Biker besta. Ekitaldi gehienak larunbatean egitekoak ziren Bear Zana pilotalekuan, hala nola, *Kustom* erako motorzaleen kontzentrazioa eta motoen inguruko estandak. Ondotik, berriz, bazkaria, eta gauean kontzertuak. Igandean motorzaleek gosaria zuten, eta ondotik eskualdean eta herrian barna bueltaxka egitekoak ziren.



# Euskal Herria egitEA

## **beste modu** batean

www.euskalherriaegitea.org



## GOIZUETA

# Goizuetako ASB ez da udal hauteskundeetan izanen

EAE-ANV eta Elkatasuna taldeak egonen dira aukeran

Esteban AROTZENA

137 goizuetarren sinaduren sostengua eta babesa ez du nahikoa izan Abertzale Sozialisten Batasuneko zerrendak maiatzaren 27ko udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Madrilgo Gobernuak eta epaileek ez dute herritarren borondatea errespetatu oraingo honetan ere.

Gauzak horrela, bi kandidatura izanen dituzte aukeran goizuetarrek aipatutako hauteskundeetan: Miel Joxe Lekuona zerrendaburu dena, EAE-ANV, eta Jon Uitzirena, Elkartasuna. Ongi jakina den bezala, Lekuona alkate izana da lehen ere, 1991-1995eko legealdian, hain zuzen. Uitzi, berriz, zinegotzia da gaur egun.

Hausteskunde-mahaiak osatu behar dituztenen zerrendaren berri ere eman zuen Udalak orain dela egun batzuk. A mahaiaren presidentea Mª Itziar Eskudero izanen da, eta bokalak, berriz, Karlos Hernandez eta Manuel Aizkorbe. B mahaiari dagokionez, esan, presidentearen postua Mª Jaione Orbegozok beteko duela, eta bokalena, Arantxa Perurena eta Asier Lujanbiok. Beste 12 lagun daude ordezkoen zerrendan.




ARGAZKIA: OLAIA LEKUONA

***Txinoko bestak finkatuta***

**Lehengo larunbatean zortzi, garbi ikusi zenez, Txinoko bestak ederki aski finkatuta daude urteko jaien egutegian. Abuztuko Amabirjinei eta Artikutzako erromeriari udazkeneko feriak eta udaberriko Txinoak gehitu behar zaizkie azken lau urte hauetan biek ere arrakasta lortu dutelako. Antolatzaileek prestatzen duten egitarau aberatsaz gain, herri bazkaria da, batean nahiz bestean, egunari dizdira ederra ematen diona. Txinoko festan 300 lagun elkartu ziren frontoian, eta ferietan, berriz, 400dik goiti izaten dira urtero.**

## ARESO

# Ainara Armendariz izendatu dute idazkari

Maiatzaren 6an Santa Kruzeko erromeria egin zen

Juana Mari SAIZAR

Maiatzaren 6an egin zen Santa Kruzeko erromeria. Eguraldia zelaeta, eta azken aldian Patxi abadea gaixorik egon delako, lau herritako zerbitzua egiteko arazoak egonen zirelakoan, erromeria egiteko zalantzak izan ziren, baina azkenean, egitea erabaki zen. Bertan, meza entzun ondotik, hamaiketakoa egin zuten herritarrek.

### *Idazkari berria*

Hamar lagunen artean frogak gainditu ondotik, Ainara Armendariz izanen da idazkari berria, eta lanaldi osoko kontratua izanen du.



ARGAZKIA: JUANA MARI

**Iazko erromesaldia eguraldi hobearekin egin zen.**

### *Hauteskundeak*

Mahaian egon beharko dutenak Mikel Olazabal, Nerea Azpiroz eta Ignazio Barandarain izanen dira.

Bestalde, hilaren 9an, 20:30ean herriko plaza zaharrean, *«ilegalizaziorik ez»* lemapean, konzentrazioa egin zuten hainbat herritarrek ANV kandidaturaren indargabetzearen kontra.

## ARANO

# Oporrak hartzeko, Kontzejuko taberna itxita

Kontxi CLAVER

Kontzejuko taberna itxita egongo da aste pare batez oporrak direla eta. Hain zuzen, maiatzaren 7tik 22 artean izanen da hori.

### *Jaunartzeak*

Aitana eta Itxaso bikiek beren lehenengo jaunartzea egin zuten joan den igandean, maiatzaren 13an.

LEITZA

# Kultur Astearen harira, ekainaren 10ean Esait Eguna eginen da herrian

## XXIX. Kultur Astea ekainaren 2tik 10era eginen da

Joseba URKIOLA

Kultur Taldekoek jada prestatu dute, Kultur Astearen 29. edizioa. Aurtengoan, berrikuntza moduan, kultura giltzarri nagusitzat hartzen den astea ekaineko lehen astean burutuko da. Hasiera, hilaren 2an izango da. Amaiera berriz, ekainaren 10ean. Honako hauxe, aurtengo egitaraua:

**Larunbata**, ekainak 2, goizean Mendi Taldekoek antolatuta, haur eta gazteentzako mendi irteera eginen da. Arratsaldean, 20:00ak aldera, «Bertsotranpak» izanen da zineman, besteen artean, Ander Lipus eta Andoni Egaña bertsolariekin.

**Igandea**n, ekainaren 3an, 9:30etik 13:30era Artisau Azoka eginen da plazan, eta arratsaldean, talo-egileak plazan egonen dira urtero bezala.

Biharamunean, **astelena**rekin, 20:00ak aldera Aurreran Leitzako inauteri zaharren inguruko aurkezpena eta mahai-ingurua eginen dira. Gainera, aste guztian udaletxean honen inguruko argazki zaharren erakusketa ikusgai jartzekoa da.

**Asteartea**n, ekainak 5, 20:00ak inguruan, Mendi Taldeak proiekzio bat eskainiko du. **Asteazkena**n, ekainak 6, Jose Mari Esparzak hitzaldia eskainiko du. Esparza Txalaparta argitaletxeko editorea da eta iaz, Durangoko Azokarako *«Cien razones por las que dejé de ser español»* liburua kaleratu zuen.

**Ostegune**an, ekainaren 7an, ilunabar partean, Peritzan Jon Maiak *«Apaizac obeto»* espedizioaren ikusentzuteko emanaldia eskainiko du. Maia bertsolariak iaz Ternuara egindako espedizioaren berri emanen du bertan.

**Ostirale**an, hilak 8, 20:00etan, Nabarralderen eskutik 1936ko Gerra Zibilaren eta memoria historikoaren inguruko hitzaldia edo mahai-ingurua eginen da.

**Larunbate**an, berriz, gazteen txanda izanen da. Gazte Eguna eginen da Atakabeltz Gaztetxekoekin batera. Arratsaldean jokuak izanen dira, eta iluntzean, urtero bezala, afaria Karrapen. Ondotik, kontzertua izanen da gaztetxean.

Azken eguna ekainaren 10a izanen da, **igandea**, eta Kultur Asteari bukaera emateko, ESAIT Eguna eginen da. Goiz-goizetik hasita hainbat ekintza eta ekitaldi izanen dira haur zein helduentzat.



ARGAZKIA JOSEBA URKIOLA

***Aurrera Preferente mailara igo da***

**Bi urtetako amets gaiztoaren ostean, Leitzako Aurrera Futbol Taldea mailaz igo da. Lehengo urtean ere, ozta-ozta ibili ziren. Baina Mendi taldea eta epailearen erabaki subjektibo batzuk tarteko, leitzarrek azken partidan 2-1 galdu zuten eta ezin izan zuten beren helburua gauzatzea lortu. Aurtengoan gauzak oso desberdinak izan dira. Taldeak konpromezu gehienei bikain erantzun die eta partida gutxi batzuk galdu dituzten arren, gehienetan 3 puntuak poltsikoratzeko aukera izan dute.**

ttipi-txartela
39 komertziotan deskontuak + aldizkaria doan
deitu eta egin zaitez!!
948 635 458

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

Arkb arkitektura bulegoa
Eraikuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza
645008478 tel

PIKABEA
harategia
janariak
Askain, 7 BERA • 948 631 384

## LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua **www.ttipi.net** eta **Ttipi-Ttapa telebista**n ere aurkituko duzu

**Leitzako Udalaren zerbitzu anitzetako enplegatu euskalduna izateko lanpostu deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.**
Non argitaratua: *NAO 43. zk., 2007/04/06*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/L0703736.htm

**Abeltzaintza ustiategiak modernizatzeko eta nekazari gazteak beren gain hasteko laguntzei buruzko arauak ezartzen dituen Foru Agindua, Landa Garapenerako 2007-2013 urteetarako Programaren barruan.**
Non argitaratua: *NAO 51. zk., 2007/04/25*
83/2007 Foru Agindua, martxoaren 27koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/F0705599.htm

**Nafarroan, 2007.urterako, kirol ekitaldi eta ikuskizunak antolatzeko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteei eta klub filialen titularrak diren entitateei dirulaguntzak emateko deialdiaren arauak biltzen dituen Foru Agindua.**
Non argitaratua: *NAO 51 zk., 2007/04/25.*
85/2007 Foru Agindua, martxoaren 13koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/F0705153.htm

**Abeltzaintzako toki azpiegituretarako laguntzen 2007ko deialdien Foru Agindua.**
Non argitaratua: *NAO 50. zk., 2007/04/23*
89/2007 Foru Agindua, apirilaren 2koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/F0705849.htm

**Ibaiak eta obra hidraulikoak hobetzeko Toki Entitateetarako laguntzen araubidea ezartzen duen Foru Agindua.**
Non argitaratua: *NAO 44. zk., 2007/04/09*
117/2009 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa, *Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana.*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/F0704173.htm

**Nafarroako Foru Komunitatean familiaren esparruan aritzen diren entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren arauak biltzen dituen Foru Agindua.**
Non argitaratua: *NAO 46 zk., 2007/04/13*
83/2007 Foru Agindua, martxoaren 8koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*
http://www.cfnavarra.es/bone/074/F0705849.htm

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da.
Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean



# %300

handitu da guztizko

inbertsioa nekazaritzako

elikagaien sektorean azken

legealdian.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua,
Javier Echartek (CDN) zuzendutakoa

CDN
convergencia

%100
Nafarroaren alde

XL mailako Nafarroa

BAZTAN

# Baztandarra kooperatibak neguan paratuko du salgai 'Baztangoa' markako gasna

Gasnategia irailerako prest egotea espero dute eta 900.000 euroko aurrekontua du

**ttipi-ttapa**

Baztandarra Kooperatibaren egitasmoak laster emanen ditu fruituak. Bertako ardi esneari balio erantsia eman nahian, duela hiru bat urte paratu zuten martxan proiektua, eta heldu den negutik aitzinera 'Baztango' izenarekin hemengo gasna komertzializatzen hasiko dira, ardi latxaren esnearekin egindakoak. Kooperatibak 300 bazkide inguru ditu, eta horietatik 50 inguru dira artzainak. Dena den, horiek guztiek ez dute esku hartuko gasna ekoizpenean. Gasnategiko arduradunek iragarri dutenez, irailean inauguratzea espero dute. Poliki-poliki, urtero 650.000 litro esnerekin, 80 tona gasna egitera ailegatu nahi dute.

Proiektuak 900.000 euroko aurrekontua izanen du, baina Nafarroako Gobernuak egitasmoa bultzatzeko dirulaguntza emanen du. Gasnategia egiten ari diren lekuan, Arizkunen, maiatzaren 3an Javier Etxarte Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura departamentuko kontseilariaren bisita izan zuten, eta adierazi zuenez, 250.000 euroko laguntza hartuko du proiektuak.

### *Berroetako bestak*

Maiatzaren 25etik 28ra Mendekoste bestak Berroetan. Xehetasunak 39. orrialdean.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

***Iruritako Damaso Zabaltza Gizarte Bilgunea obretan***

Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilguneak 10 hilabete itxita egin dituenean, goitiko gelako zurezko sabaia pladurrez estaltzen hasiak da. Hiru aste dituzte lanean baina ekaina izanen da akitu orduko. Oroitu dezagun, Nafarroako Gobernuak ixteko ohartaraztapena eman zuela, zuraje horrekin sute arriskua zegoelako, eta horregatik, konpondu egin behar zen. Bueltaa eta traba aunitzen ondotik, pladurra paratzea onartu zuten. Lanak Angel Viela egiten ari da, 23.000 euro inguruko aurrekontuarekin.












BAZTAN

# Euriteek kalte haundiak eragin ditu Baztanen

## Arraioz izan da kaltetuena, uraren indarrak plaza ere goratu zuen





ARGAZKIAK: ONDIKOL ETA JUAN CARLOS MORTALENA

**Goian Elizondon urak zenbaiterainoko maila hartu zuen ageri da; behekoan, berriz, uholdeek nola utzi zuen Arraioz.**

**Maite OTEIZA**

Maiatzaren 4ko arratsaldean, agerian gelditu ziren uholdearen ondorioak. Ia 100 urte pasatu dira, Baztanen uholdeak izan zirenetik (1913). Goizeko 8etarako Baztan ibaiak Arraioz aldean gainezka egin zuen. Hortik aintzinera, berriak bata bertzearen gibeletik heldu ziren: Arraioz, Irurita, Elizondo, Azpilkueta, Amaiur… Herririk kaltetuena, halere, Arraioz izan zen, herriko plaza uraren indarrez nola goratzen zen ikusi zen, Mardeako karrikak errekak bihurtuz.

Elizondon, Jaime Urrutia karrikan, jendea ibaiari begira zegoenean, karrikak ere urez bete ziren, eta hainbat denda eta garajetan ere sartu zen. Agian, kaltetuena Arrupea botika izanen zen Santiago karrikatik eta Jaime Urrutiatik ura sartu baitzitzaion.

Elbeten etxe partikularrak, jatetxeak (Oñaska), enpresak (Pevi), Bagordi eta Amezti aldetik jausten zen urak kalte haundiak sortu zituen. Gainerako kalteak pistetan, baserrietako bideetan, behitegiak, arditegiak… Agian lerro hauek idazteko tenorean, zenbait ondorio aipatu gabe gelditukо dira.

Udaleko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak Arraiozen izan ziren, kalteetaz jabetzeko. Egun berean, Baztan eta Bortzirietako alkateak gobernuko ordezkariekin bildu ziren Bertizen, tartean Miguel Sanz Nafarroako presidentea, eta dirulaguntzen inguruko informazioa jaso zuten.

### Musika Eskolen Topaketa

Ekainaren 2an Musika Eskolen Topaketa eginen da Elizondon. Aurtengoa seigarren edizioa da eta Baztango Udal Musika Eskolak antolatuko du.

### Aurrematrikulazioa

2006/07 ikasturtea azken txanpan sartu denean, 2007/08 ikasturterako aurrematrikulazio epea ireki da. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan maiatzaren 22 bitarte egonen da zabalik. DBH eta Batxirlegoan, berriz, Lekarozko institutuan maiatzaren 21 arte eta Elizondoko Lanbide Eskolan 28 bitarte. Lanbide Hastapenerakoa ekainaren 4tik 24a arte.

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

SOULE
hileta artea



ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Kudeaketa Administratiboa
Erdi Mailako Zikloa
ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!
NORENDAKO:
PLAN MALGUA:
SARBIDERAKO BALDINTZAK:
AURREINSKRIPZIOA:
I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

ZUGARRAMURDI

# Inoiz ezagutu ez den hondamena eragin dute euriteek herrian

## Bideak, zubiak, zenbait etxeren barrukaldea eta kanposaindua kaltetuak

**Koro eta Margari**

Horrelako hondamenik ez zuen nehorrek ezagutzen herrian. Peñaplatatik hasi eta Arleunerako mendiek ixuri zituzten ur, lohi eta urek kalte izugarriak sortu zituzten: hainbat bide eta zubi deseginak; Madaria auzoko pista moztua; baserri inkomunikatuak (Iriartekoborda, Ixtilartekoborda...); Errotaren ingurua hondatua; kanposainduko alde berria lohi eta harriz beteta; leizeko zola, zubiak eta argiteria xehatuak; baserriak urak hartuta (Bereko Benta, Etxeaundikoborda...). Galtzagorritegin dagoen euria neurtzeko tresnak 205 litro hartu zituen metro koadroko.

Herritik bertatik ez da errekarik pasatzen, baina halere, ez gara libratu: Urbia eta Arleunetik jautsi zen uholdeak kalteak sortu zituen, batez ere, Lapiztegia karrikan: zenbait tokitan brea altxatu zen; Irietxea pentsutegian eta Tinta Bentan ura sartu zen; Arleunetik eroritako mendi puska Beskorrea parera ailegatu zen; Axkoa eta Odiaraino ailegatutako errekek ere kalteak eragin zituzten...

Biharamunean, agertu zen Nafarroako Gobernuko ordezkaria eta dirulaguntzak emanen direla erran zuen, baina bazterrak moldatu arte denbora ganen da.



ARGAZKIAK: KORO ETA MARGARI

**Goiko argazkian kanposainduko alde berria ageri da, euriteen ondorioz, lohi eta harriek hartua. Behekoan ikus daitekeena, Sarako leizeetatik Ixtilarteko bordara doan bidea da.**



AZKAIN-SARA

# Euriak kalteak eragin ditu Saran eta Azkainen ere

**ttipi-ttapa**

Maiatzaren 4ko ekaitza eta euriteen ondorioak Saran eta Azkainen ere nabaritu ziren. Zonaldeko bertze zenbait herriren artean kaltetuenetarikoak izan ziren. Azkainen, adibidez, ehunka etxeetara sartu zen ura eta arazo haundiak izan zituzten. 30 minutuz 70 zentimetro egin zuen goiti. Etxeetan urik gabe gelditu ziren bizpahiru egunez. Eskola ere itxita egon zen ia aste batez, hilaren 10a bitarte. Sararen kasuan ere kaltea haundia izan zen. Herriko etxe eta karrikak ez ezik, ekaitzak gogor erasan zituen leizeak, eta hasiera batean, berriro irekitzea ere zalantzan paratu zen. Halere, Jean Aniotzbehere alkateak iragarritakoaren arabera, zazpi-zortzi hilabeteren buruan berriro irekitzea espero dute.






SENPERE

# Elkartasun kate zabala sortu da herrian uholdeeri buru egiteko

Barne ministro ohiak irabazi ditu bozak Senperen ere

Franck DOLOSOR

Frantzian bezala, herrian ere Nicolas Sarkozyk irabazi zuen bozen bigarren itzulia. Halere, bi hautagien aldea ttikiagoa izan zen Senperen. 1.643 bozekin (%52,39) eskuina nagusitu zen eta parean ezkerrak 1.493 eskuratu zituen (%47,61). Lehen itzulian, Sarkozyk 989 boz izan zituen. Le-Pen (210) eta Bayrou (924) hautagaien bozen parte bat irabazi zituen. Ségolène Royalek 625 boz izan zituen lehen itzulian. PSk Bayrou eta Besancenot (188 boz), José Bové (78 boz) eta ekologisten (85) boz batzuk ukan ditu. Aipatu, partehartzea altua izan dela, %83,35koa.

Bertzalde, hauteskunde legegileak ekainaren 10 eta 17an eginen dira diputatuak hautatzeko. Euskal Herria Bai koalizioaren izenean, Beñat Elizondo Urruñako hautetsia eta Eliane Galarraga senpertarra aurkeztuko dira.





Argazkiak: Franc DOLOSOR

**Maiatzaren 4an uholdeek kalte haundiak sortu zituzten herrian. Aintzirak gainezka egin zuen eta goizeko 6etan ez ziren ikusten hondartza eta bidea.**

URDAZUBI

## Leizeak 'salbatu' dira uholdeen kalteetatik

ttipi-ttapa

Euri erauntsiek Urdazubin ere kalte ugari utzi zituen. Urak metro bateko altuera hartu zuen herrian eta denda eta jatetxeetan kalteak sortu. Uholdeen egun berean, maiatzaren 4an, N-121B errepidea bera Dantxarinea parean itxita egon zen. Ikaburuko leizeetan ere ondorioak somatu ziren, baina bertatik jakinarazi digutenez, leizeak jendeari irekiak daude eta ez da hainbat hedabidetan erran bezainbertzeko kalterik izan.

### *Margo erakusketa*

Ekainetik aitzinera margo erakusketa berria zabalduko da Monasterioan. Arrieta, Bonnefis, Cariou, Garzia, Yola eta Patxi margolarien lanak egonen dira ikusgai. Sarrera doan izanen da eta egunero egonen da irekia, 11:00etatik 20:00ak bitarte.






KULTURA

# Goizueta, Elizondo eta Doneztebeko ikasleak sarituak 'Irudikatu Europa' lehiaketan

## Idazlanen kasuan lehen hiru sariak Goizuetako Xalto eskolakoentzat izan dira

**ttipi-ttapa**

Cederna-Garalur Elkarteak antolatutako «Irudikatu Europa» lehiaketan hainbat sari eta aipamen berezi jaso dituzte eskualdeko ikasleek. Hain zuzen, GoizuetakoAndres Narbarte Xalto ikastetxe publikokoak, Doneztebeko San Migel ikastetxe publikokoak eta Elizondoko Baztan Ikastolakoak izan dira sarituak.

Marrazki eta idazlan-lehiaketa izan da eta guztira Nafarroako Mendialdeko 10 ikastetxek parte hartu dute. Maiatzaren 9an sari banaketa egin zen Iruñan.

Idazlanen kasuan, «Kontatu nolakoa den Europa» Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketan, hiru lehenengo sariak



UTZITAKO ARGAZKIA

**Maiatzaren 9an jaso zituzten sariak lehiaketako irabazleek.**

Goizuetako Xalto eskolakoentzat izan ziren. Berbizne Narbarte, Julen Arotzena eta Olatz Zabalak eskuratu zituzten sari horiek. Berbiznek bi liburu eta saritutako idazlanak biltzen dituen argitalpena jaso zituen. Bigarren eta hirugarren gelditutakoek, berriz, idazlanen argitalpena. Horrez gain, Goizuetako hiru saritu hauen gelako 17 ikasleak Ttipi-Ttaparen egoitza ezagutzera etorriko dira hilaren 29an.

Aipatzekoa da, idazlanen argitalpena lehiaketako marrazkiekin jantzi zela eta horretarako hautatu ziren marrazkien artean zonaldeko batzuenak zeudela: Olatz Martin Doneztebeko San Migel eskolakoarena, eta Janire Bakero eta Garazi Loiarte Goizuetako Xalto eskolakoenak. Hauek ere beren marrazkiak biltzen dituen liburua jaso zuten.

Marrazkiei dagokienean, berriz, Lehen Hezkuntzakoei zuzenduriko «Marraztu Europa» lehiaketan, Xalto eskolako Ainhoa Zabaletak eta Baztan Ikastolako Maite Elizetxe eta Ainhoa Juanikorenak aipamen bereziak jaso zituzten. Guztiek euren marrazkiak ageri diren egutegia jaso zuten.

Lehiaketan parte hartu duten ikastetxe guztiei ere Europari loturiko hezkuntzako material sorta emanen zaie.

BURKAITZEA
· ostatu
· erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
948 599 280 · URDAZUBI

Iñaki Alzuiet margoak
Tlfnoa: 659 862 417

inprimategia
publizitatea
diseinu grafikoa
Mailposta Buzoneos
Leitzako bidea,9 . DONEZTEBE · 948 592 313

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713



SEAT
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Banarta, 2 · Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505




BARRENEAN DARAMAZULAKO, **ZURE BOTOAK NAFARROA ERAIKITZEN DU**

# MAIATZAREN 27A

Hauteskundeak 2007

NAFARROAKO PARLAMENTUA

Informazio guztia www.navarra.es

Nafarroako Gobernua






**Francisca**
**ITURRIA ALTZURI**
**Igantzin, 2007ko apirilaren 16an**

*Zuretik aunitz ikasi dugu*
*ematea da emattea*
*zu bezalako pertsona ezta*
*zail egitten maitatzea*
*ama on ona izan ziñela*
*amatxi berriz hobea*
*orain falta zaigun gauz bakarra*
*denagatik eskertzea*

**ZURE SEME-ALABAK.**

Familiak eskerrak eman nahi ditu, egun gogor hauetan gure ondoan egon diren guztiei.



**Francisca**
**ITURRIA ALTZURI**
**Igantzin, 2007ko apirilaren 16an**

*Gure bihotzak penaz beteak*
*hemen dittuzula utzi*
*gure artetik joan zarela*
*ezin dugula sinetsi*
*horrelakorik ez genuela*
*ezta zuk ere merezi*
*agurrik ez dizugu emanen*
*gero arte bai AMATXI.*

**ZURE BILOBAK ETA BIRBILOBAK.**



**Jaione**
**MUTUBERRIA MENDIKOA**
**Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an**

**I. URTEMUGA**

*Gure etxeko lorea gabe*
*etorri da aurtengo udaberria*
*baina beti loratuko da gugan*
*zure oroitzapen xarmangarria*

*Beti gure bihotzetan egongo zara*

**ZURE FAMILIA.**

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



**Jaione**
**MUTUBERRIA MENDIKOA**
**Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an**

**I. URTEMUGA**

*Denbora pasa arren,*
*zuk eman zenigun alaitasun eta maitasunak*
*bizirik jarraitzen du gure bihotzetan.*
*Baina zuk utzitako hutsunea*
*ezinezkoa da betetzea,*
*hustasun mingarri bat utzi zenigun*
*ta horregatik beti gurekin eramango zaitugu.*

**JOSEBA ETA FAMILIA.**



# EZKONTZAK

**Rafael Antonio Garrido Etxeberria** eta **Monique Riveiro de Andrade**, Berakoa eta Brasilekoa, apirilaren 25ean.

**Jose Mª Zozaia Agirre** eta **Agurtzane Larraz Azkarate**, Leitzakoak, apirilaren 30ean.

**Jose Miguel Arbelaitz Hernandorena** eta **Arantza Heras Aizpurua**, Zubietakoak, maiatzaren 2an.

**Xabier Tapia Ibarra** eta **Belen Mutuberria Bergara**, Bera eta Lesakakoa, apirilaren 21ean.

**Jose Ignacio Kortina Salegi** eta **Mª Humildad Lucas Angulo**, Oitzen, maiatzaren 6an.

**Javier Oteiza Larretxea** eta **Nagore Iribarren Burgete**, Donostia eta Elizondokoa, martxoaren 31n.



# SORTZEAK

**Peio Martikorena Etxandi**, Berakoa, apirilaren 18an.

**Mishel Gonsalez Borel**, Berakoa, apirilaren 27an.

**Naiara Diaz Dos Santos**, Doneztebekoa, apirilaren 13an.

**Ander Rodriguez Goienetxe**, Doneztebekoa, apirilaren 13an.

**Isabel Lapuente Soarez**, Doneztebekoa, apirilaren 17an.

**Elixabet Tapia Iturria**, Lesakakoa, apirilaren 30ean.

**Daniel Calvo Aranzadi**, Etxalarkoa, apirilaren 26an.

**Roberto Marco Petra**, Etxalarkoa, apirilaren 27an.

**Pedro Etxeberria Jimenez**, Elizondokoa, apirilaren 5ean.

**Naia Gallego Elizagoien**, Elizondokoa,apirilaren 23an.

**Antton Telletxea Quertier**, Elizondokoa, apirilaren 23an.



# HERIOTZAK

**Felipe Apezetxea Perurena**, Goizuetakoa, apirilaren 29an, 73 urte.

**Victoriano Garate Urrutia**, Iruritakoa, apirilaren 25ean, 65 urte.

**Mª Dolores Muñiz Gartzia**, Elizondokoa, apirilaren 27an, 86 urte.

**Manuel Erasun Mariezkurrena**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 29an, 74 urte.

**Mª Carmen Codes Bellido**, Elizondokoa, apirilaren 28an, 62 urte.

**Javier Irisarri Dufurrena**, Erratzukoa, apirilaren 30ean, 62 urte.

**Clemente Mendiburu Gortari**, Elizondokoa, apirilaren 29an, 72 urte.

**Fernando Lantz Landa**, Leitzakoa, apirilaren 30ean, 58 urte.

**Martina Perurena Mikeo**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 30ean, 83 urte.

**Santiago Irigoien Igoa**, Lesakakoa, maiatzaren 5ean, 93 urte.

**Manuel Iturralde Dolagarai**, Iruritakoa, maiatzaren 5ean, 88 urte.

**Mª Luisa Durruti Erdozia**, Etxalarkoa, maiatzaren 6an, 89 urte.

**Rafael Olagarai Danboriena**, Etxalarkoa, maiatzaren 6an, 83 urte.



**Jose Angel**
**TOMASENA ELIZALDE**
Etxalarren, 2006ko maiatzaren 18an

**I. URTEMUGA**

*Nahiz eta gure artetik*
*duela urte bat*
*urrutira joan,*
*beti izanen zaitugu*
*gure bihotzean*

**ZURE FAMILIA.**



**Amalia**
**GALZAGORRI GALZAGORRI**
Sunbillan, 2007ko apirilaren 14an, 81 urte

*Urak dakarrena*
*urak darama,*
*zuk emandakoa*
*gurekin geldituko da*

**ZURE FAMILIA.**



**Felizitas**
**ZABALETA AIERDI**
Leitzan, 2006ko apirilaren 29an

**I. URTEMUGA**

*Gure ondotik joan zinenetik*
*urtea pasatu arren*
*ez zaitugu ahaztu*
*ez eta ahaztuko ere*

**ZURE FAMILIA.**

MENDIA

# Fernando Etxegarai bigarren Berako Mendi Maratoi Erdian

## Patxi Irazoki gizonezkoetan, eta Kristina Arbues emakumezkoetan hirugarren helmugaratu ziren

Gurutze PIKABEA

Euskal Herriko mendi lasterketen denboraldiak eskualdean ireki zituen ateak: apirilaren 29an Beran egindako III. Mendi Maratoi Erdian. Gogorra izanagatik ere lasterkari indartsuen topaleku izan zen. Ia 400 lagunek parte hartu zuen, eta bai nesketan eta bai mutiletan, iaz lortutako errekorrak gainditu ziren.

Gizonezkoetan, Fernando Etxegarai Manttale taldeko beratarra bigarren gelditu zen, irabazlearengandik 28 segundura. Faboritoak beratarra eta Ionut Zinka gasteiztarra ziren, aitzineko bi edizioetako txapeldunak, hurrenez hurren, baina azkenean Zinkak irabazi zuen, 1:41:27ko senbora eginez. Etxegarai 1:41:55-rekin helmugaratu zen, eta iazko errekorra gainditu zuen. Hirugarrena, berriz, Patxi Irazoki igantziarra izan zen, 1:46:06-ko denbora egin zuen. Beteranoetan laugarren ailegatu zen Juan Mari Garinek irabazi zuen (1:46:34). Lehenbiziko hamarretan eskualdeko bertze ordezkari bat ere helmugaratu zen, hau ere Manttale taldekoa: Unai Barazabal azpilkuetarra. 10. postuan ailegatu zen baztandarra, 1:49:34ko denborarekin.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Gizonezkoetan lehen hiru postuetan gelditu ziren lasterkariak. Eskualdeari dagokionez, Fernando Etxegarai bigarren eta Patxi Irazoki hirugarren.**

Emakumezkoetan, Alizia Olazabalek arazo haundirik gabe irabazi zuen lasterketa bigarren aldiz. Aitzineko marka hobetu zuen 2:07:05eko denbora eginez. Bigarrena Nerea Amilibia helmugaratu zen, 2:11:43rekin. Eta hirugarren postua Igantzin bizi den Kristina Arbues katalanarentzat izan zen, Manttaleko kidea hau ere. 2:16:37ko denbora behar izan zuen lasterketa akitzeko. Beteranoetan, berriz, Helena Perezek erdietsi zuen garaipena (2:37:07).

### OMENALDIA

Lasterketaren ondotik, omenaldia eskaini zioten Luis Mª Pikabea 'Loro', Xabier Zubieta 'Zubi' —lasterketa honen bultzaile nagusietakoak— eta Xabier Saralegiri. Manttale Mendi Lasterketa taldeak zendutakoen senitartekoei oroigarriak eman zizkieten.







# Maiatzaren 27an eginen da Baztango XIV. Mendi Itzulia

G. PIKABEA

Baztango Mendigoizaleak antolatuta, maiatzaren 27an eginen da Baztango XIV. Mendi Ibilaldia. Aurtengo ibiladia Almandozen hasi eta Almandozen bukatuko da eta 34 kilometro izanen ditu. Antolatzaileek 7-8 inguruko iraupena izanen duela aurreikusi dute. Guztira egin beharreko maldek 2.120 metroko desnibela dute. Mendi martxa 7:00-7:30ean hasiko da eta Almandoztik abiatu ondotik, Burgalar (826m), Barazelai, Gartzaga (1.294 m), Okolin (1.358), Sagardegi, Zetume (1.351m) Zuriain (1.411), Belateko ermita, Belate, Belateko Gaztelua, Mendiola eta San Blasetik pasatu ondotik, Almandozera itzuliko da. Aipatu, Okolingo lepora ailegatzean bi aukera izanen direla: Sagardegiko lepora zuzenean edo Saioa mendi kaskora (1.418m). Ibilbidea erregulatzeko bortz kontrol gune ere jarriko dira: Amandozen (irteera), Barazelain, Zurianeko jaitsieran, Belaten eta Almandozen (bukaera). Kontrol guztietan janaria eta edaria eskainiko dira parte hartzaileentzat.

Izen-ematea egunean bertan egin beharko da, 6:30etik 7:30era bitartean. Aitzinetik ezin izan izanen da apuntatu. Prezioa, berriz, federatuentzat 10 eurokoa da, eta federatuak ez direnentzat 12 eurokoa.

PLATER TIRAKETA

# Fagoatarrak txapeldun Nafarroako Skeet Olinpiko txapelketan

## Antonio Javier eta Itsaso Fagoaga aita-alabak

G. P.

Antonio Javier Fagoaga eta Itsaso Fagoaga aita-alaba lesakarrak txapeldun gelditu dira Nafarroako Skeet Olinpiko Txapelketan. Txapelketa 100 platerekin jokatu zen, eta horretarako bi saio jokatu behar izan zituzten parte hartzaileek apirilean eta maiatzean: Baldorban 50 plater eta bertze 50ak Elizondon. Azken saio hau maiatzaren 1ean jokatu zen, eta eguraldi txarra izanagatik ere, aita-alabek 50 plateretik 41 bota zituzten. Hala, Elizondoko saioan hirugarren eta laugarren postuak eskuratu zituzten.

Baina apirilean Baldorban jokatutako saioa kontuan hartuz, sailkapen nagusian txapeldun izan ziren. Antonio Javier aita txapeldun absolutua, eta Itsaso alaba, berriz, emakumezkoetan.

Elizondoko saioan txapeldun J. Jose Aranburu gelditu zen, saio bikaina egin zuen, 50 platеretik 48 hautsita. Azpitxapeldun, berriz, Carlos Zubieta gelditu zen, 50etik 44 platera bota ondotik.

Bertzalde, Elizondon bertan, Foso Universal delako tiraketa ere jokatu zen egun berean, eta modalitate honetan, Xabier Azpeitia gelditu zen txapeldun. Bigarren kategorian, Adolfo Farpon (46 platera); hirugarrenean Juan Perez 43 platera hautsita eta laugarren mailan Domingo Yoldi 45rekin. Beteranoetan Pablo San Martin gelditu zen, 42 platera hautsitakoan.



ARTXIBOKOA

**Antonio Javier Fagoagak eta Itsaso alabak emaitza onak eskuratzen segitzen dutela erakutsi dute berriki. Argazkia joan den urtean Espainiako Skeet Olinpiko txapelketan ateratakoa da, orduan ere bikain ibili ziren.**

ATLETISMOA



PERTSONAIA

Rafa MARITXALAR

### Garaile Lesakako XIII. Herri Lasterketan

Rafa Maritxalar lesakarrak bere izena daraman lasterketa irabazi zuen maiatzaren 6an, Lesakan. Hasieratik bi lagun nabarmendu ziren: Maritxalar bera eta Gabriel Garin burlatarra. Ibilbide osoan elkarrekin ibili ziren, baina azken metroetan lesakarrak aitzin hartu eta bi segundoko aldea atera zion. Hirugarren Baionako Daniel Mehats helmugaratu zen.











# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## ERAKUSKETAK

### URDAZUBI

**Maiatzaren 28a bitarte,** «Udaberriko Klaustroa» izeneko pintura eta eskultura erakusketa Klaustroan. Asteartetik ortziralera 12:00etik 19:00era zabalik. Mendekoste Astelehenean, hilak 28, ere zabalik. **Ekainean,** margo erakusketa Klaustroan. Egunero 11:00etatik 20:00etara.

## ANTZERKIA

### BERA

**Maiatzaren 18an,** «Meando fuera del tiesto» antzezlana eskainiko du Kunka taldeak 20:00etan Kultur Etxean.

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 22an,** Txutxin Ibañezen diska berriaren aurkezpena eta Jalisko Band, Lur dantzalekuan, 00:30ean.

### LESAKA

**Maiatzaren 21ean,** haurrentzako euskaraokea, Arrano Elkartean, 17:00etan.

## IKASTAROAK

### BERA

**Maiatzaren 21etik ekainaren 1era,** emakumeentzako eta adinekoentzako informatika ikastaroa. Izen ematea dohainik da eta 012 telefonoan egin behar da. **Ekainaren 15etik 17ra,** «Sukaldaritza eta clown» eta «Clown-antzerkia» ikastaroak Alkeeberea landetxea. Izen ematea 948 631162 telefonoan, Esther Carrizo 61, 31780 Bera helbidean edo *mugabeclown@terra.es*-en.

## TELEBISTAKO TXOKOA



TTIPI-TTAPAK EMAITZAK ESKAINIKO DITU

# Hauteskundeen balorazioa hauteskunde gau berean

Maiatzaren 27an eginen dira Nafarroako Parlamenturako eta udaletarako ordezkariak aurkeratzeko hauteskundeak. Aitzineko urteetan bezala, Ttipi-Ttapa Telebistak ahalegin berezia eginen du gau horretan herriz herriko emaitzak ikusentzuleei jakinarazteko. Eskualdean hauteskundeek zein emaitza utzi dituzten bertze inon baino lehen ikusiko dituzue Ttipi-Ttapan. Izan ere, herriz herriko datuak eskuratu ahala, udalen eta Parlamentuaren osaketa berriak zein izanen diren kontatuko da zuzenean. Bide batez, bozketa egunak emanen dituen gorabeheren errepasoa ere eginen da, hautes-mahai desberdinetan hartutako irudiekin. Eta behin betiko emaitzak eskuratu ahala, duela lau urteko emaitzekin konparatuko dira. Gainera, inguru honetako alkate berrien eta parlamenturako hautagaien balorazioa biltzen ere saiatuko gara.

**Maiatzaren 18an, Lesakako Musika Bandaren erreportajea**
Lesakako Musika Bandak 150 urte beteko ditu aurten. Horren harira, bandari buruzko erreportajea eta horren harira, maiatzaren 5ean egindako bestaren eguneko irudiak eskainiko dizkizuegu maiatzaren 18ko erreportajean.

## DISKAK




*Hari biru*
**MADDI OIHENART**
*ELKAR, 2007*

Barrurantz kantatzen du Maddik, bakea eta isiltasunaren artean doinua bilatuz eta naturaren melodien artean uztartuz. Bertze kantari eta musikari aunitzekin batera hainbat proiektutan hartu du parte Maddik, bainahonako *Hari biru* hau bere izenean kaleratzen duen lehen diskoa da. Zuberoako esentziak, bere arimaren lasaia eta gizakiaren betidaniko oroimenak harilkatzen ditu Maddik ahots eder, sendo eta zabalaren inguruan, bere konposizioak, hala nola, egungo zuberotar olerkiak bertzeren gainetik nabarmenduz. Disko honek harritu eta harrapatu egiten du; biluzia bezain dotorea, gizatiarra eta zerutiarra aldi berean, Maddiren ahots unibertsalak gure ametsen bidezidorrak argitzen dizkigu, irribarrez bere magal beraon esnatzen garen bitartean.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Apirilaren 27tik maiatzaren 4ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 34,00 € (-1)

**Zerri gizena**
1,060 € kiloa. (-0,010)

**Zerramak:**
0,440 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,89 (=)
**1.koa** 3,58 (=)
**2.koa** 3,38 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,01 (=)
**1.koa** 3,70 (=)
**2.koa** 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 190,00 (=)
idixkoak 271,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 150,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,95/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,10/5,70
8-10 kilokoak: 4,10 /4,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# Euriborraren etengabeko gorabeherek kezka sortu dute Iracherengan

Hipotekadunadunak aurrezten hasi dira

Azkenaldian Euriborra goiti doa, eta Irache Kontsumitzaileen Elkartearentzat hori kezkagarria da. Interes tipoen igoera kezkagarri horren erakusle, azken urtean euriborrak 1,032 puntuan egin duela goiti. Etengabeko igoera horren aitzinean kontsumitzaile aunitzengan ezinegona sortu dela dio Irachek, batez ere, gazteengan. Hipoteka berriki hitzartu dutenen eta etxea erosteko finantza bideak bilatzen ari diren gazteen artean gertatzen omen dira horrelakoak. Halako igoerek hileroko kuota 80 euro baino gehiagora eramaten dute, 960 euro baino gehiago urtean.

Elkarteak egindako inkesta baten arabera, nafarren %36k hipoteka du, eta horietatik %65, 30 eta 45 urte bitartekoak dira. Egoerari aitzin egin aldera, %25ek neurriak hartu ditu: ostalaritzan, aisialdian, elikagaietan eta jantzietan aurrezten hasi dira. %5ek senitartekoei eskatu die dirua eta bertze %5ek bankuko kredituaren baldintzak aldatzeko eskatu du.



**Arazo ekonomikoei aitzin egiteko, aurrezten hasi dira aunitz.**

Gorako joera horren eragina Kontsumitzaileen Elkartean ere nabaritu omen dute. Jende andana hurbildu omen zaie hileroko kuota jaisteko zer egin behar den edo mailegu finkoa ala aldakorra komeni zaien galdetzera.

Interes tipoen igoera eta hipotekaren kuota gaindiezina denean mailegua berriro negoziatzeko aholkatu du Irachek, epea luzatuz edo interesak bakarrik ordaintzeko garaiak eskatuz. Kontsumitzaile Elkartearen arabera, indarrean sartu den Hipoteka Lege berriak bankuen arteko lehia areagotu egin du eta hori aprobetxatzea garrantzitsua litzateke, baldintza hobeak eta hileroko kuota jaisteko eskatzeko.

Hipoteka sinatu behar dutenentzat, berriz, ahal dela ez zorrik egiteko gomendatu du Irachek, eta marjina uzteko. Bertze aholkua 35 edo 40 urtetik goitikoentzat da: *«ez sinatu hipotekarik»*. Elkartearen hitzetan, *«horrelakoetan ez delako beherapenik egiten; aitzitik, interes kopuruak goiti egiten du»*.

## LIBURUAK




*Riag Entinak*

**Joxe IRIARTE**

*EL WATAN, 2007*

*«Liburu hau zirkustanzia baten seme edo alaba da, eta nire buruan irudikatzen hasi zenetik argitaratu arte maratoia baino bide luzeago egin du. 2000ko eguberriak. SEADeko Lagunen Elkartean dabilen Gasteizko aspaldiko adiskide batek telefonoz hotsegin zidan: Hi, Joxe, animatuko al hintzake Tindufeko basamortuan maratoi bat egitera? Kirola eta elkartasun politikoa uztartu nahi dizkiagu sahararen alde»*. Saharako maratoiaren inguruko lana da, Mendebaldeko Saharako Errepublikako herritarrei elkartasuna adierazteko egiten den lasterketa horretan parte hartu duen batek idatzia. Dena den, liburu hau, engaiamendu politikoa soila baino haratago doa. Maitasuna eta senidetzaren isla bada ere. Izena, berriz, *Riag Entinak* erraten diotelako sahararrek sirokoari, hau da, basamortutik hondar ekaitza eragiten duen haizeari.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Maiatzaren 26an,** Aralar-Leitza mendi ateraldia, Ulibeltzak mendi taldearekin.

**BAZTAN**

**Maiatzaren 20an,** Arantzara ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak.

**Maiatzaren 27an,** Baztango XIV. mendi martxa.

### BESTAK

**BERROETA**

**Maiatzak 25, Bezpera**

20:00 su ziriak bestei hasiera emateko. Herriko trikitilariak herrian barna.
20:30 Txopo goratzea
21:00 Baztan-zopak
23:00 dantzaldia Joxe Anjelekin

**Maiatzak 26, Haurren Eguna**

10:30 dianak
11:00 ipuin kontaketa
12:00 herritarrak baserritarren kontra desafioa
16:30 Haur eta gaztetxoentzat jokoak
18:30 Asto Karrera
21:00 Herri afaria
00:00 dantzaldia Santxotenarekin

**Maiatzak 27, Mendekoste**

12:00 Meza Nagusia Elizondoko abesbatzarekin
13:00 Hamaiketakoa
13:30 Binakako pilota partidak. Herriko pilotariekin.
18:00 Herri kirolak: Basaburua, Arantza, Berriozar eta Igantzi.
19:00 XXXIV. Asto Karrera
19:30 dantzaldia Joxe Anjelekin

**Maiatzak 28, Zikiro Eguna**

10:30 diana
11:00 XXXV. bizikleta itzuolia
12:00 Mus txapelketa
14:30 Zikiro jatea
18:00 Sokatira: ezkonduak ezkongabeen kontra
19:00 Futbol partida: ezkonduak ezkongabeen aurka
21:00 Xingar jatea
22:00 Gaixoa ni

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telefonoan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 8 €. Rural Kutxako 3008 0080 53 0703364626 kontuan sartu.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak



**ADOS**

ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.

ERRATZU.
- Apartamentua salgai.

ARRAIOZ.
- Pisua salgai.

BERA.
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Etxea salgai.

LESAKA.
- 2. eskuko pisuak salgai.

ETXALAR.
- Baserria salgai.

DONEZTEBE.
- Apartamentua trastero eta aparkalekuarekin salgai. AUKERA ONA!!
- Promozio berriko pisuak salgai.
- Inguruan etxeak, baserriak eta bordak salgai.

BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak,etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

PROMOZIO BERRIAK:
IGANTZI. Azaken pisua eta duplexa salgai.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

**ANZABAL INMOBILIARIA**

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 50.000 metro'ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

**Baztango**
promoción inmobiliaria

SALMENTA:
BERA: Etxe egin berriak, igogailuarekin.
BERA: Bigarren eskuko 2 eta 3 logelako pisuak.
BERA: Lokalak salgai eta alokairuan..

PISUAK ETA BASERRIAK:
ARANTZA, DONEZTEBE, ELIZONDO eta ERRATZUn.

ZAHARBERRITUTAKO ETXE BEREZIAK:
ERRATZUn eta AZPILKUETAn.

LUR EREMUAK:
BERA, ETXALAR, SUNBILLA, ELIZONDO, ERRATZUn neurri desberdinetakoak.

ALOKAIRUAK:
ELIZONDO: Pisua, 3 Logelatakoa.

ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**ETXALAR.** Baserria bere lurrekin salgai. ☎948 635122 (20:00etatik 22:00etara).

**LESAKA.** 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lur eremuarekin eta lizentziekin salgai. Lur eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinen putzuarekin... Prezioa: 50 milioi euro (negoziatzeko). ☎678 526091.



**IRUN.** Pisua salgai Nafarroa Etorbidean, 8 bizitzako etxean. 3 logela, 2 komun eraberrituak, 3 balkoi, propano berogailua, egongela, trastelekua eta loradegi komunitarioa. ☎667 074419.

**BULDAIN INMOBILIARIA**

LEITZA:
Herri erdian eraiki behar diren:
- Lau pisu salgai.
- Bi apartamentu salgai.

Tfnoa: 948 510 534 bulegoa

**BERA.** Eztegara pasealekuan etxea salgai. Ganbara (93m²), garajea eta lur eremua aitzineko aldean. Etxea, garajea eta lur eremuak 125 m² dituzte. ☎696 308488.

**DONEZTEBE.** Pisua salgai, egoera onean. 95 m², egongela, sukaldea, 2 bainugela eta 3 logela. ☎ 600610832.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**ELIZONDO.** Etxea edo pisua errentan hartu nahi da Elizondon edo inguruan. ☎647 050496 / 662 251848.

**BAZTAN.** Etxea, borda edota baserria errentan hartu nahi da. Etxea zaindu eta konponketak egiteko prest, alokairu merke baten truke. ☎619 605939.

**Baztan, Bortziriak, Malerreka.** Pabiloia edo nabea errentan hartu nahi da, kanpoan lur eremu hormigoiduna duena. ☎618 542592.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**LESAKA.** 20 m²ko garajea salgai, Albistur 43. ☎659 609678.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Amazabal 31n tarteko solairua errentan emateko. Bi lokalekin (ezker-eskuin), 30m² eta 40m²koak eta komunarekin. Argitsua. ☎ 948 510471.

**LESAKA.** Trasteroa eta garajea errentan emateko, Iturbera kafetegiaren azpian. ☎948 637366.

## LURRAK/ORUBEAK
### 115 Errentan hartu

**IRURITA-ELIZONDO** inguruan baratzea egiteko lur eremua errentan hartu nahi da, zakurrarentzako txabolarekin. ☎636 874422.

## ZERBITZUAK
### 205 Zurginak

## ZERBITZUAK
### 208 Bertzelakoak

**ARANTZA**
Zurgindegia
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

## LANA
### 301 Eskariak

**BORDA**
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

VENTANAS ARAMBURU
Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan



Gabiria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11



alletu dira ibardingo haize berriak...
venta AGUIRRE benta
THE COTTÉ
TOMMY
PEPE JEANS
EDC
ESPRIT
JATETXEA
DENDA
·
·
·
IBARDINGO GAINA - BERA
948 631 158 - 948 631 314


**BERA.** Neska euskalduna eskaintzen da Beran haurrak zaintzeko, arratsaldez eta udan. ☎617 275673.

**Neska** eskaintzen da edozein lanetan aritzeko, udan. ☎696 735905.

**BERA.** Etxeak eta eskailerak garbitzen eta umeak edo zaharrak zaintzen lan eginen nuke. ☎695 731069.

**BERA**ko 21 urteko mutila eskaintzen da lan egiteko. ☎650 407978.

Udan **klase partikularrak** emanen nituzke. ☎686 202197 (Alaitz).

## LANA
### 302 Eskaintzak

**BERA.** Jatetxe batean zerbitzaria behar da. ☎654 385363.

**OITZ.** Posadan zerbitzaria behar da asteburu eta jai egunetan lanean aritzeko. ☎948 451951.

**ELBETE.** Erretegi batean zerbitzaria behar da. Ahal bada esperientziadua. ☎948 452088/ 619 253932.

**BERA.** Frantsesa eta euskara dakien neska behar da Ibardingo oparidenda batean asteburuetan eta udan lan egiteko. ☎ 948 630718.

**BERA.** Ibardingo benta bateko ostatuan barran egunero lan egiteko frantsesa dakien pertsona behar da. ☎ 948 631394.

**BERA.** Ibardingo benta bateko urdaitegian egunero lan egiteko pertsona behar da, frantsesa dakiena. ☎948 631394.

**BERA.** Kataku ostatuan pertsona euskalduna behar da lan egiteko. ☎659 097216.

**BERA.** Zalain Motorren emakumea behar da kotxeak garbitzeko. Gida baimenarekin. ☎948 631157.

**LESAKA.** Trailer batekin inguruan lan egiteko txoferra behar da. ☎690 776147.

**BERA.** Jatetxe batean sukaldari laguntzailea behar da. ☎654 385363.

**SUNBILLA.** Ariztigain kanpalekuan zerbitzaria behar da egunero lan egiteko. ☎948 450540.

**SUNBILLA.** Ariztigain kanpalekuan mantenimendu lanak egiteko pertsona behar da. Bertan lo egiteko aukerarekin. ☎948 450540.

**Haurrak, adinekoak eta** menpekoak edo etxea zaintzeko lan-poltsetan izen ematekо deialdia. ☎619 829289/948 625122 (Amaia).

**Zerbitzaria** behar da asteburuetan ostatuan lan egiteko. ☎619 913375 (16:00etatik 22:00etara).

**DONEZTEBE.** Ostatu batean zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 450383.

**ETXALAR.** Etxalarko bentan igerilekuko soroslea behar da udan lan egiteko. ☎ 948 630709.

**BERA.** Udal igerilekuko ostatua alokatzeko jendea behar da. ☎ 948 630245.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Ford Focus familiarra** salgai, diesela. ☎ 616 078307.


MENDAUR MOTOR
948 450333 ¥ DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Montero IO 5 ate, Ibiza eta Almera.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 ¥ DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.
BIGARREN ESKUKOAK
Opel Astra 2.0, Kangoo 1.9 D 200 lkoa (gibeleko aldea itxia), Citroen C5 2.0 HDI, Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Renault Express 1.6 D, Citroen ZX 1.9 TD.


**Renault 19TD** salgai. Prezio onean. ☎ 948 634112 (20:00-21:00)/ 620401461.

**Trialeko gas-gas 280** motorra salgai, 2002koa. Egoera onean. ☎637460017.

## MOTORRA
### 502 Tailerrak

## ANIMALIAK


GANIX TAILERRA
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA
FIAT zerbitzua
Iturlandeta, 9 - Tel: 948 630 669


### 601 Emateko

**Sagu zakurkumeak** oparitzen dira. ☎ 685 709282.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Pastor aleman** arrazako zakur emea salgai, 5 hilabete dituena. ☎649 139365.

**Oilagor** zakurkumeak salgai, Seter Ingelesak. ☎ 948 630238. (20:00etatik aitz.).

## DENETARIK
### 701 Galdu/aurkituak

**BERA.** Labiaga mendian apirilaren 24an betaurreko graduatuak galdu ditut. Aurkituz gero, ☎ 630 258504.

**LESAKA.** Udaletxean erlojua aurkitu da. ☎948 637005.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Komuneko antzinako altzaria** (lababoa ispiluarekin, pitxerra eta armairua) eta Ortziren **«Euskadi pueblo y nacion»** bilduma salgai (Sendoa). ☎ 639 266069.

**Enpaketatzailea** gurdiarekin salgai, fardo ttikientzat, ebakitzaileak eta arrasteluak. ☎686 287387.

**Bigarren eskuko leiho** eta **ateak** salgai, txatarrak ere. ☎675 714221.

**Ospitaleko ohea** eta **gurpil-aulkia** salgai. ☎948 580026.

**Ardiei ilea mozteko makina** berria salgai. ☎635 753353 / 943 612936.

## DENETARIK
### 703 Bertzelakoak

Leitzan grabatuko den «Buena Nueva» filman adin guztietako jendea behar da. Ez da ordainduko. Interesatuek: *helenv_85@hotmail.com*


SUKALDE ERAKUSKETA
AMAIVR
vegasa
BISITA EZAZU
Modelo berriak:
rustikoak • modernoak • praktikoak
Entzimerak: silestone • granito • corian ...
Elektrogailu nazionalak eta alemanak
Rosa Seminario 13 • Tel.:948 450 400 • DONEZTEBE


ausartu
Bera aldatzen
Bozkatu
aralar
euskara
www.aralar.net

www.lurelizondo.com

# Lur

maiatzak26

## TXUTXINIBAÑEZ

## DISKA BERRIAREN AURKEZPENA

## +JALISKO BAND

00:30 8€

ekainak2

## inconScientes

www.inconscientes.es

(EXTREMODUROren gitarra, baxu-jole eta bateria)

00:30 12€ aurretik 15€ takillan

ekainak9

## JOXEINA

01:00 8€

ekainak16

## DENBORALDIARENBUKAERA

## DJRITXI+LURDJOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

Elizondo(Nafarroa)